

<< Ikus-entzunezkoak Euskadin >>

R. Zallo

Área 3- Industrias Culturales

3. Arloa: Kultura Industriak

(Versión en euskera- Euskarazko bertsioa))

Febrero, 2003ko otsaila

IKUS-ENTZUNEZKOAK EUSKADIN

O. SARRERA: IKUSENTZUNEZKOAK EUSKAL KULTURAN

1. IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN AURREKARIAK

- 1.1. Analisi-aurrekariak
- 1.2. Aurrekari historikoak euskal kulturaren garapenean

2. NAZIOARTEKO ETA HURBILEKO ZENBAIT ERREFERENTZIA

- 2.1. Ikus-entzunezkoak European
- 2.2. Ikus-entzunezkoak Espainiako Estatuan
- 2.3. Ikus-entzunezkoak autonomia-erkidegoetan

3. DIAGNOSTIKOA

- 3.1. Definizioa, egitura eta ezaugarriak
 - 3.1.1. *Definizioa: ikus-entzunezkoen aurpegia eta gurutzea*
 - 3.1.2. *Jarduera ekonomikoen egitura: zinema, TBrako produkzioa eta enkarguzko bideoa*
 - 3.1.3. *Euskal ikus-entzunezkoen egituraren ezaugarriak*
- 3.2. Ikus-entzunezkoen sektorearen balio-katea
- 3.3. AMIA diagnostiko estrategikoa
 - 3.3.1. *Zuzendu beharreko ahuleziak*
 - 3.3.2. *Ustiatu beharreko indarguneak*
 - 3.3.3. *Saihestu beharreko mehatxuak*
 - 3.3.4. *Aprobetxatu beharreko aukerak*
- 3.4. AMIA matrizearen irakurketa gurutzatua

4. GOGOETA

- 4.1. Kultura-politika globalaren esparru nagusiak ikus-entzunezkoetan
- 4.2. Estrategia industrial
 - 4.2.1. *Oinarrizko elementuak*
 - 4.2.2. *Helburu eta lehentasun industrial orokorrak*
- 4.3. Proiektuak eta ekintzak
- 4.4. Zailtasunak

OHARRA: Txosten-zirriborro honetan ezin da ahaztu Kulturaren Euskal Planarekin batera Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek (Kultura, Industria eta Ogasuna), EITBk eta aholkulari-etxe batek, zeinak lanaren zama handiena bere gain hartu baitu, "Ikus-entzunezkoen Sektoreko Liburu Zuria"ren zirriborroa (2003ko otsaila) prestatu dutela, eta hortik berriz hartu direla –ezinbestean, noski– txosten honetarako edukien zati laburtu batzuk. Alde bat baino gehiagok norabide berean eta estrategia komunaz egindako erakunde-akordio handia da: euskal ITBren ekarpena, Kultura Sailaren ekarpen estrategikoa –Kulturaren Euskal Kontseiluaren laguntzaz– eta kultura-sektorea lehentasuna duen industria-sektore gisa (Industria Saila) hartzea, moldatutako eran finantzatu beharrekoa (Lehendakariordetza) eta fiskalitate pizgarriaz tratatu beharrekoa (Ogasuna). Liburu hori oraindik argitaratu gabe dagoenez eta aurkezpenari aurrea ez hartzearen, hemen ez dira zehazten eduki eraginkorrenetako batzuk, baina denen ahotan dabilen informazioa denean aipatu egin da¹. Testu hau EAera bildu da, erabakiak hartzeko begi-bistako arrazoiak egon direlako, baina ikuspuntutik ez da alde batera uzten ez Nafarroako Foru Erkidegoa ez eta Iparraldea ere, historia komuneko kultura- eta komunikabide-espazioaren zati direlako.

0. SARRERA. IKUS-ENTZUNEZKOAK EUSKAL KULTURAN

Berez komunitateak oinarritu eta definitzen dituen kultura bera esparru berezia eta alde anitzekoa da. Funtsezko zatietako bat kulturaren industrietan eratzten dute eta hauek dira horien ezaugarri batzuk: etengabe berritzea, gizartearen eragina izatea, sozializazioan, talde-irudimenezkoan eta garapen demokratikoan zeregina izatea, sormen- eta adimen-lana ardatza izatea, subjektibotasuna edo legeria berezien mende egotea (jabego intelektuala, adierazpen-askatasunari buruzko legeria, sormena sustatzea, zerbitzu publikoa).

Kultura-industrien edo eduki-industrien barruan, ikus-entzunezkoena da alde guztietan eragin handiena duena: gizarteak asko eta egunero eskatzen duelako, zentzumen- eta emozio-eraginagatik, edukiak ekoitzi eta igortzeko sistema ahaltsuak dituelako, beste adierazpen-forma batzuekin ere erabil daitekeelako, eta kultura-proposamenen multzoan rola eta ospea banatzen dituelako. Horregatik irratitelebistako sistema publikoetan agerpen publiko esanguratsua eta konpentsaziozkoa ere izaten da.

Ikus-entzunezkoen sektoretik (zehatzagoa litzateke kultura eta komunikabideetako sektorearen azpisektoretik esatea) honako ohar hauek azpimarratuko lirateke:

1) Ikus-entzunezkoen sektorea herri bateko kultura-industrien edo edukizkoen sistemaren zati da. Sistema orokor hori industria hauek eratzten dute: liburugintzak, egunkarigintzak eta aldizkarigintzak, diskogintzak, zinemagintzak, bideogintzak, publizitate-sorkuntzak, irratia eta telebista. Zuzeneko masa-ikuskizuna ere sar liteke –bertsolaritza berezko adierazpen garrantzitsua da– eta kultura-turismoa ere bai. Gaur egun informatikako, Interneteko eta multimediako informazio- eta kultura-edukiak ere sartu beharra dago; baita telebista, sare eta ordenagailuko zeharkako kultura-edukiak ere.

Pentsatu behar da ikus-entzunezkoak zinema eta telebistaren, diskoaren eta irratia batura huts gisa baino gehiago direla. Izan ere, bertan hauek ere biltzen baitira: bideojokoek hartzen duten guztiaren prestaketa eta kudeaketa, espazioa eta bolumenak 2-D eta 3-D-an edo animazioa magnetikoki edo elektronikoki adieraztea eta edozein motatako eginkizunak (hezkuntzakoak, aisialdikoak, enpresa-trebakuntzakoak, zerbitzuak, informazioa, marketina, produkzio aurrekoa, ikuskizuna eta produkzioa). Horiek denak batuta gizartearen bitzira osoari eragiten diote. Gaur egun ikus-entzunezkoen alde apustu egitea ez da telebistako eta zinemagintzako produkzioa mugatzea.

Hala ere, ikus-entzunezko komunikabideen azken bi alderdi horiek aztertuko ditugu, askoz ere esparru zabalagoetarako erabakigarriak eta erdiguneak direlako. Gainerako esparruak beste txosten batzuetan ikusiko dira².

¹ Txostengile honek bertako edukietan oso aktiboki parte hartu duenez gero, ez litzateke bidezkoa izango Liburu Zuriko ikuspuntua ez bezalakoa edo aurkakoa adieraztea; izan ere, eragileek etorkizunean kontuan izan beharreko erreferentiaz nahasketak sortuko lirateke. Nolanahi ere, txosten honetako Lan Taldearen hurrengo aurrerapenetan bai txostenean eta bai, argitaratzen denean, Liburu Zuriaren alderdian sakontzen saiatuko da.

² Hala ere, testu honetan ez dira diskoa ("musika" txostena), Internet ("kultura digitala" txostena) edo ikuskizunak ("arte dramatiko" txostena) aztertuko, eta irratia ere gutxi aipatuko da ("komunikabideak" txostena).

2) Adierazpide gisa, irudia, ikus-entzunezkoa, ez da nahitaez simplea eta naturalista, konplexu eta abstraktutzat hartzen den idatziaren aurrean. Irudi bakar batek –koadro batek edo plano batek– testurik luzeenak baino konplexutasun handiagoa izan dezake. Horixe frogatzen du askotan zenbait publizitate-irudik duen adierazgarritasun-aberastasun zainduak. Dena sormenaren eta kalitatearen araberrakoa da. Ikus-entzunezkoa ez da herritarra eta hutsala, kultura-industria klasiko batzuetako hizkuntza nagusia baizik. Gainera, aro digitaleko kulturak entzutekoa, ikustekoa eta testua konbinatu egiten ditu, baina ikusitakoa da kultura-parametro nagusia. Horren inguruan biltzen dira idatzitakoa, entzuten dena eta ikusten dena, edo horrek hurbiltzen ditu ordenagailua, sarea eta telebista.

3) Baliabide teknologiko, magnetiko, kimiko, elektroniko eta informatikoak zein telekomunikabideetakoak erabiltzen dituen adierazpidea izateaz gain, ikus-entzunezkoena sektore ekonomikoa da eta estrategikoa izatearen ezaugarriak ditu, Europako Batasuneko ingurunean behintzat, bai gizarteko eraginagatik eta eskariagatik eta bai berezko pisua gero eta handiagoa duelako, zehar-izaera duelako eta kultura-sistema zein komunikabideak, oro har, antolatzeke eginkizuna duelako.

Ikus-entzunezkoen industria ezin da banandu kultura-edukiak sortzetik eta enplegua zein aberastasuna sortzetik. Aldi berean, baliabide, inbertsio edo teknologiarik gabe kultura-garapenik ez baldin badago, horiek ezer gutxi balio dute sormenetik eta etengabeko berrikuntzatik (kulturan tradizioaren eta aldaketaren arteko elkarriketaren funtsa baita) erabiliko dituzten pertsonarik ez baldin badago. Ez da ahaztu behar, halaber, ikus-entzunezkoena gaur egungo eta etorkizuneko industria-jarduera dela. Era berean, aro digitaleko edo, nahi izanez gero, Informazioaren Gizarteko edukien funtsezko arloa ere bada³.

4) Bere produkzio-eragatik eta kulturaren zati denez gero, ikus-entzunezkoen sektoreak izaera bikoitza eta banandu ezina du. Kultura izateko, batez ere, industria izan behar du, industrialki ekoitzi behar da, eta berariazko industria izateko, kultura-arloko edukiak erabili behar ditu, egiazko kultura izatea edo itxura besterik ez izatea alde batera utzita. Hori da bere izateko arrazoa eta kudeatzea konplexu izatea, itxaropenez eta zalantzez betea bihurtzen duena.

5) Eskariaren gero eta handiagoa den zatian, ez dago eragin industrialak dituen kultura-politikaren esparruan ez dagoen politika industrialik edo kultura-eragin desberdinak dituenik, nahiz eta eskariak minorizatutako kulturen egitura-eskasiagatik oso garrantzitsuak diren beste alderdi batzuez ere arduratu behar duen. Bi dimentsioei eta horien azentuei nahitaez erantzungo dien bidea aukeratzea da kontua. Definitu beharreko politikak industrialak eta kulturalak izan behar du.

6) Garrantzitsua da sektore estrategiko berritatz hartzea eta ahalegin politiko-ekonomikoa egitea, lehenasuna duen sektorea izan dadin. Horretarako arrazoi ekonomikoak (etorkizuna du, eskaria eta gero eta merkatu handiagoak daude) eta kulturakoak (nortasuna, zeren bestela besteek ekoitziko baitute euskaldunek kontsumitzeko). Bi gai horiek elkarrekin doaz, honako hau kontuan hartzen bada: alegia, gaur egun kultura moderno gisa eraikitzeak barne hartzen dituela produkzioa, edukiak, baliabideak, sareak, patenteak, balio erantsiak, kultura-industriak... Egoera zailean bere kultura eraiki behar duen Euskal Herriak, beraz, ikus-entzunezkoen sektore sendoa behar du eta mundua zein bizitza ikusteko gure erak adieraziko dituzten edukiak sortu behar ditu.

7) Nolanahi ere, ikus-entzunezkoak gizarte-ingurunean teknologia, kultura eta industriako mekanismo nagusi baino zerbait gehiago dira.

Lehenik eta behin gizarteko egituraketaren eta autorregulazioko zati dira. Ikur, irudi, soinu, kontakizun, balio, estetika, informazio, etab. hedatzeko duen berariazko eginkizunetik, ikus-entzunezko komunikabideek gizarte eta erakundearen antolamendu-eredu bat legitimatzeko eginkizuna dute, gizartearen premiak arautzen eta asetzen parte hartzen dute eta kontsumorako bideak adierazi eta bultzatu egiten dute, informazioaren eta publizitatearen bitartez. Irratia eta telebista gizarte demokratikoetako botere-sistemaren zehar-zati bat dira. Laguntzaile eta kontrapisu zainzailearen lana egiten dute.

Bigarrenik, komunitateen barruan gizarte-integrazioan eragin erabakigarriak ditu. Mundua atzemateko eta adierazteko adierazpidea da, konpainia, denbora-pasa, informazioa eta kultura eskaintzen dituen eta gizarte-

³ Sareak eta ekipamenduak edukitakoan, erabiltzeko jakintza eta trebetasunak areagotzen direnean, eta formatuen, gailuen eta abarren bateratzean aurrera egiten denean, edukiak, baliabide interesgarriak (testuetakoak eta irudietakoak, aurkezpenak, moldatutako zerbitzuak...) izango dira sarean harremanak eta praktikak bultzatuko dituztenak, eta horietan jokatu da gure izatea ala ez izatea.

-lotura, nortasuna (kultura, hizkuntza eta politikakoa) eta komunitate baten iritzia eta espazio publikoa sortzen funtsean laguntzen duena. Aldi berean, komunitatea modernitatearen eta kultura-trukearen erronka aldakorretarako prestatzen du.

Hirugarrenik, norbanakoaren eta taldearen kulturaren funtsezko zati bat antolatzen du. Gizartearentzat argi eta garbi funtzionaltasuna du; izan ere, kulturako eta informazioko eskakizunak asetzen ditu, bai masa-kultura homogeneotik eta bai eskaintza pertsonalizatutik.

Azkenik, ekonomiaren zati garrantzitsua da. Ekonomiako azpisektorea osatzen du berak, ekonomiaren aldetik gero eta errentagarriagoa eta indartsuagoa da, hazkunde eta balio erantsi handia ditu, enplegua sortzen du eta aukera bila dabilzan kapitalak sartzeko erakargarria da.

Dituen ezaugarri batzuk nabarmenduko ditugu:

Kultura-nortasunak eraikitzean duen pisua.

Duen adierazpide-aniztasuna; horri esker arte-sorkuntzarako eta edozein jardueratarako zehar-izaerarako mintegi bihurtzen da.

Kulturako ohitura, praktika, eskari eta kontsumoetako lehentasuna –belaunaldi gaztean eragin berezia izanik– eta gizarte aurreratuen eskakizunetara komunitateak moldatzeko eragin garrantzitsua.

Kanpora proiektatzeko ahalmena, ikustekoa batez ere, hizkuntza unibertsal bihur daitekeelako.

Edozein sektore ekonomiko baino gehiago izanik, gizartean eta kulturaren proiektzioa izatea exijitu behar zaio; izan ere, horren eraginpean ugaritzen dira neurri batean komunitateak eta gizarteak. Gizarteko ikuspegitik rol estrategikoa baldin badu, agian ez du izango ekonomiaren eta kulturaren ikuspegitik.

8) Euskal kultura bezala gutxiengoan dagoen kulturarentzat nahitaezkoa da esparru guztietan gaitasuna izatea (zineman, telebistan, diskoan, irratan...). Ekoizpen aldetik espezializatu beharra ere ezinbestekoa du segmentu horietako batzuetan, bera bizirik irauteko eta garatzeko baldintza moduan beretzat eta besteentzat ekoizteko.

9) Euskararen normalizazioa ere ikus-entzunezko adierazpide guztietan sartzan eta onartzen den mailaren mende dago. Arlo honetan ikus-entzunezko publiko eta pribatuek izan duten zeregin garrantzitsua aitortu beharra baldin badago ere, gogoratu beharra dago jakite eta erabileraren aldetik maila egokiaz azpitik daudela. Eskaintza- eta kostu-arazoa da, baina erregulazio falta handiegia dago eta entzuleriaren gustuekin lotura falta ere bai. Gainera, ez da ahaztu behar programa estandarrekin oso bestelakoak diren populazio-segmentuetara heltzeko dagoen zailtasuna. Euskarak prentsan zabalkundearen % 3 du, telebistan ez du hartzen merkatuaren % 6 baino gehiago, eta irratan –oso komunikabide egokia izanik– publikoetan % 10era iristen da eta pribatu komertzialetan % 3ra besterik ez. Herrietako telebistetan laurdenak baino ez ditu euskarazko emankizunak.

1. IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN AURREKARIAK

1.1 *Analisi-aurrekariak*⁴

Euskal ikus-entzunezkoen sektoreaz egindako azterketa ekonomikoak gutxi dira. Lehen txosten orokorra P. Azpillagarena izan zen: "El sector audiovisual en Euskadi". Makinaz idatzia zen eta ez zen argitaratu (1992), eta ondoren IKEIren txosten osagarria atera zen (Karmen Usozena): "El sector audiovisual vasco: diagnóstico y propuestas de actuación" Kultura Saila. 95-12-14.

Geroztik zatikako beste analisi batzuk⁵ argitaratu dira, eta horiei gaikako beste azterketa batzuk gehitu beharko litzaizkieke, ekonomiazkoak baino gehiago egiturazkoak, zinemas⁶, irrati⁷ eta telebistaz (erkidegokoak,

⁴ Orain ez dugu aztertuko ikus-entzunezkoen sektorea Europa mailan (ikus André Lange-k gidatzen duen Ikus-entzunezkoen Europako Behatokiaren urteroko txostenak) edo Espainia mailan (zinemarako J.M. Alvarez Monzoncillo-k, irratarako Rosa Franquet-ek edo telebistarako E. Bustamante-k aztertua, ikus E. Bustamante-ren (koordinatzailea) "*Comunicación y cultura en la era digital. Industrias, mercados y diversidad en España*". Gedisa 2002,artzelona).

⁵ J. M. Torrealdai "ETB eta Euskera" Elkar 1985; C. Garitanoandia eta beste zenbait: "La Comunicación en el País Vasco" in AAVV "Comunicación en los países sin estado" EHU 1990; J.L. Ibañez: "Origen y desarrollo de Euskal Telebista 1982-1992" EHU. 1995; M. de Moragas, C. Garitanoandia eta B. Lopez: "Televisión de proximidad en Europa: experiencias de descentralización". Aldea Global.artzelona 1995; R. Zallo (zuzendaria) "Industrias y políticas culturales en España y País Vasco". EHU 1995.

⁶ S. De Pablo (argit.) "Los cineastas. Historia de cine de Euskal Herria (1896-1998)". Antso Jakituna Fundazioa. Gasteiz 1999; C. de Miguel eta beste zenbait "Ilusión y realidad. La aventura del cine vasco en los años 80" Filmoteka. 1999; Carlos Landeta: "El cine en el País Vasco.

herrietakoak eta euskarazkoak⁸) EAEkoak edo Euskal Herrikoak, edo komunikabideen analisiak⁹. Oraindik orain SPRIk euskal telebistari programak eta zerbitzuak hornitzen dizkieten azterketa/inkesta egin du.

Nolanahi ere, gaiari buruzko azterketa falta dago, materialaren, solidoaren, burdinaren eta makinaren ekonomian aditu izan garela adierazteko. Orain immaterialaren ekonomiara igaro behar dugu –eta oraindik ez dugu behar adina ikasi–; hau da, ukiezinaren eta jakituriaren ekonomiara, balio erantsiarenera eta zerbitzuenera, eskubide eta aktibo immaterialenera igaro behar dugu (ikus-entzunezkoen, gidioen edo garapenen, edo patenteen eta teknologien, jakintza eta marken, edo baita suntsikorren eta galkorren ekonomiara ere).

1.2. Aurrekari historikoak euskal kulturaren garapenean (interpretazio-oharrak)

Euskal kultura modernoaren historian kultura herrikoiak eta XIX. mendearen amaieran hasitako modernizazio-prozesuak "kultura jaso" historiko deienez genezakeenak baino pisu handiagoa izan du. Beste herrialdeetan ez bezala, euskal kultura eratzekeo prozesu historikoak, eliteen kultura gizarkeo maila guztietara pasatzeari gutxiago zor dio aurkako prozesuari baino.

"Kultura jaso" Erdi Aroaz gero izan zen, Errenazimentuan eta Antzinako Erregimenean, gizartekeo maila gidariei lotuta. Lehenbizi nobleak izan ziren, gero hirietako eta landetako burgesiak, eta Eliza eta funtzionario-burokraziak, eta eztanda berezia izan zuen Ilustrazioan, "Azkoitiko Zalduntxoak", Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Bergarako Erret Mintegia eta Oñatiko Unibertsitatearen eskutik (1774).

Hala eta guztiz ere, euskal komunitatearen kultura herrikoiak zeregin nagusia izan zuen. Batez ere ahoz birsortu eta transmititu zen –familiar eta gizarkean–, bai landetan eta bai hiribilduetan.

Kultura herrikoia indar horren sorreran hainbat faktore biltzen dira: uharte-herriaren kultura-berezitasuna, bere sorreraren izaeragatik eta hizkuntzagatik; erromanizazioa eta kristautzea berandu gauzatzea; euskal feudalismoaren ahulezia, bertako artean halako berdinaletasuna itsatsi zelako eta "kaparetasun orokorra" lortu zelako. Azken hori mito bihurtu zen *jauntxoek* XVIII eta XIX. mendean erakunde boterea haiek bakarrik kudeatzera iristen ziren neurrian.

XVIII. mendearen azken hereneko euskal Ilustrazioa kultura-aurrerapen praktikoaren ideari atxiki zitzaion. Lehentasuna eman zion arkitekturari (euskal neoklasikoa), teknikari eta hirigintzari, norbanakoagoarenak gehiago diren kultura-praktiken aurrean (ikusizko arte edo literaturaren aurrean, hain zuzen). Literatura nahikoa urria izan zen garai hartan eta argitaratutakoa gaztelaniaz edo frantsesez egin zen, hau da, erakunde-hizkuntza idatzietan.

Kultura materialaren eta kanpo-kutsukoaren (lanari, burdina lantzeari eta nagusi-talde berrien arkitektura zibil eta oinetxeetakoei lotutakoarena) lehentasun horrek bere kutsua utzi zuen, eta industrializazioa azkar zergatik gauzatu zen ulertzen laguntzen du. Industrializazio hori ia XIX. mende osoan iraun zuen krisi politiko (bi karlistadak barne), ekonomiko eta kultural larrien denboraldiaz gero gauzatu zen. Euskal Herria, horrela, XX. mendean nortasun-krisi larriaz abiatu zen, kultura- eta nazio-proiektu desberdinez. Nolanahi ere, ia mende osoko hutsune politikoa kultura herrikoiak bete zuen, zeinak iraganarekin halako jarraipena segurtatu nahi baitzuen.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, kultura minorizatu batzuetan, Katalunian adibidez, Europako mugimendu erromantikoarekin lotutako berpizkunde indartsua sortu zen. Alabaina, Euskal Herrian ez zuen han adinako indarririk izan, baina adierazpen ugari izan zuen: Lore-jokoak, Eusko Ikaskuntza (1918)... Neurri batean ospe eta eragin handiko elite erlijiosoek kudeatu zuten.

De Ama Lur a Airbag". Eusko Ikaskuntza 1999; P. Azpillaga, P. Idoiaga: "Guía de ayuda a medios" EHU/IBAIA 1999; K. Larrañaga, E. Calvo: "Lo vasco en el cine" (I eta II). Filmoteka 1997 eta 1999.

⁷ T. Santos 1999: "La radio vasca (1978-1998)". EHU, Bilbo; A. Gutierrez: "Euskal irratigintzaren Historia" UEU. Bilbo 200a; Carmen Peñafiel: "Irratiaren historiako 20 urte Euskal Herrian". JAKIN, Uztaila-Abuztua 1995; C. Peñafiel: "La radiodifusión nacional vasca", in VVAA. "Comunicación na Periferia Atlántica". USC, Santiago Konpostelakoa, 1996, eta Zer 13. zk. "Los bits radiofónicos en el dial vasco". EHU 2002; P. Barea, "Hábitos de la recepción de la radio en el País Vasco". ZER, 6. zk. 1999ko maiatza.

⁸ A. Aranguren: "Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian". Doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa 2000.

⁹ P. Idoiaga, Tx. Ramirez: "Al filo de la incomunicación". Fundamentos 2002; R. Zallo, P. Azpillaga, J.C. de Miguel: "Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian". Alberdania 2002.

Berpizkundean denak ez ziren ikuspegi berekoak izan. Literaturan, adibidez, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, etab. euskara kultura-hizkuntza gisa homologatzen saiatu ziren mendearen lehen herenean, eta 30eko hamarkadan Aitzol, Lekuona eta abar kultura herrikoari gehiago lotuta ibili ziren.

Kultura-adierazpen bakoitzak egoera desberdinak bizi izan zituen mendeetan zehar, nahiz eta XX. mendearen hasierako modernizazioa pizgarri positiboa izan. Hala ere, aldien arabera jazarpena edota diglosia zela eta, euskarazko adierazpen idatziek garapen motelagoa izan zuten.

Poesian, antzerkian edo narrazioan ahozko euskal literatura kultura herrikoari zegokiona izan arren, gaztelaniaz idatzitako kultura idatziak tradizio handia izan zuen Espainiako "Argien Mendean" gero euskal gizarte-mailen ordezkari ziren eta Koroari funtzionario ugari hornitzen zioten erakundeetako elite kudeatzaileengan.

Funtsean Eliza izan zen euskara kultura-hizkuntza idatzi gisa normalizatu zuena, Etxeparek 1545. urtean kantatzeko zen ahozko poesia herrikoia idatzita edo Erreformaren (Leizarragak Biblia itzuli zuen 1571ean) eta Kontrarreformaren (Axularrek 1643an *Gero* idatzi zuen) arteko gatazken eraginez.

Ordura arte gizartean eta familian erabiltzeko hizkuntza baino ez zen, XVIII. mendean gero atzera zihoana, besteak beste eliteek utzi egiten zutelako, Espainiako Monarkiak hizkuntza bakarra izateko apustua egiten zuelako eta erdigune Bilbo zuten ekonomia eta merkataritzako fluxuengatik.

Euskara literaturan normalizatzeko, XX. mendera arte itxaron behar izan zen. Gerra zibila baino lehenagoko (1936-1939) literatura-mugimenduaren ondoren, XX. mendeko 70 eta 80ko hamarkadetan igaro da mailaka eliteek erabiltzeko eta kulturako hizkuntza izatera, Elizaren esparrutik kanpo (horrek mantentzeko lan guztiz baliotsua egin ondoren).

Zenbait fenomenok argitzen dute hori: 1968az gero, *euskara batuak* gramatika eta sintaxia batzeak; diktadorea hil zenean izandako demokratizazio eta deszentralizazioko prozesuak; mailaka hezkuntza-eredu osoan ezartzeak eta jendeak ospea emateko eta hedatzeko egindako lanak, bai helduak euskaldunduz eta bai, batez ere, etengabeko atzerapenari buelta eman nahi zion diskriminazio positiboko kultura- eta hezkuntza-politikarekin.

Mende-laurden bat geroago gaur egungo euskal literaturan beste literaturen parekoa den izen-multzoa osatu da (Atxaga, Saizarbitoria, Lertxundi, Sarrionandia, Irigoien, Landa edo Izagirre). Gainera izen horiei beste sentikortasun batzuk dituen belaunaldi berria gehitu behar zaie (Zaldua, Oñederra, Elorriaga, Cano..).

Durrio edo Mogrovejo-ren aurrekariak eskulturan eta Guiard eta Regoyos-en aurrekariak pinturan izan arren, XX. mendeko lehen herenean lortu zuen garapen garrantzitsua eta abangoardiakoa ikusizko kulturak, plastikoak, bi dimentsioko irudienak edo bolumenenak, euskal pintore eta eskultoreek egindakoak eta artista-nozio modernoaren ondorengo denarenak. Industrializazio azkarrak errotik aldatu zuen Euskal Herriko boterearen fisionomia, ekonomia eta egitura. 20ko hamarkadan euskal artistek parte hartzen zuten Europako abangoardietako kezka eta estiloetan. Etxe barruan gizartean onartzea kostatu egin zen. Euskal gizartearen begirada heztea falta zen.

Hala ere, euskal artistek XX. mendeko lehen hereneko arte-abangoardietan parte hartzeak sormeneko eta artisten begirada-heziketako ondare garrantzitsua utzi zuen. Horri esker, Espainiako eta Europako gerraren ondoren lekukoa berriz hartu zen, bai arte plastikoetan –60ko hamarkadan munduan ospetsu bihurtu ziren Txillida edo Oteizarekin– eta bai musikan –Ravel, Guridi, Usandizaga, Bernaola, Sorozabal, De Pablo, Escudero eta abarrekin–.

"68ko maiatzeko" belaunaldiak lehen unetik ulertu zuen euskal kulturaren bi aldeetako garapena (bai bere produkzioaren aldetik eta bai euskarazko produkzioaren aldetik) kultura-industrien teknikekin produzitzearen mende zegoela eta hori zela kultura-jarraipenerako borroka-esparrua; baita nazioz gaindiko edo Estatu nazioko gainerakoarekiko truke-fluxuen desoreka izugarria murrizteko borroka-esparrua ere. Horregatik egin zuen kultura-produkzioaren forma industrializatuak bereganatzearen aldeko apustua, horregatik abangoardia plastiko ugari eta arrakastatsua bermatzeari utzi gabe.

Halaber, 60ko hamarkadaren amaieran zinemagile, zuzendari edo irudi-ekoizleak sortu ziren (Kerexeta, Uribe, Olea, Armendariz...) eta gaur egun beste belaunaldi bat dute jarraian (Medem, Urbizu, Bajo Ulloa...).

Euskal artista plastikoak eta zinemagileak –batzuk elite-kultura produzituz eta besteak masa-kultura produzituz– Euskal Herritik kanpo ere nabarmendu ziren aldaketa-garaian, non 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadan Espainia frankistan ekonomian eta gizartean sortzen zen ezinbesteko modernizazioa, masa-gizartearen arte-industrializazioak zuen gizarte-proiektzioa pizgarri- eta kontraktasun-izaera konbinatzen baitzen. Garrantzi berezia izan zuten ikustekoak eta entzutekoak, nahiz eta aldaketa politikorako idatzitakoa eta askatasuneko talde-espazioak irabazteko masa-ikuskizunak erabakigarriagoak izan.

Musikan, 60ko hamarkadaren amaieran eta “*Ez dok amairu*” izanik ordezkari –aurrekari batzuk bazeuden arren–, ezkondu egin ziren kultura herrikoa, masa-kultura eta errebindikazioa, folklore-musika tradizionala alde batera utzi bazen ere. Lertxundi, Laboa, Artze edo Lete, eta horien ondoren sortutako Oskorri eta beste zenbait dira adierazgarrienak. 70eko hamarkadako kantautoretzari, musika herrikoari eta *folk*-ari 80ko eta 90eko hamarkadetan *rock erradikalak* (Hertzainak...) eman zien jarraipena. Hainbat talde eta estilo azaldu ziren (Gurrutxaga edo Erentxun gaztelaniaz, Itoiz, Errobi edo Muguruza edo Junkera-ren gidaritzapekoak euskaraz). Talde-imaginariorako gizarte-eragin garrantzitsua izan dute.

Horri guztiari esker, asko garatu ziren euskarazko musikan espezializatutako disko-etxeak eta disko-merkatua. Hala ere, eragina euskal kulturaren espaziora mugatu zen, gaztelaniazko musika-talde batzuentzat eta, salbuespen gisa, zirkuitu espezializatueterako folk-talderen batentzat izan ezik.

Bertsolaritzak, bere aldetik, modernitaterako jauzia eman du adierazpide berriaren bitartez gaur egungo gizarte-baldintzetara moldatuz. Adierazpide horretan, ahozko literaturak, poetika jasoak, gizarte-iruzkinak eta masa-ikuskizunak parte hartzen dute, bai zuzenean eta bai irratiz edo telebistaz belaunaldi anitzeko jendearentzat emanda.

Komunikabideak azkar ezarri ziren, XIX. mendeko amaierako prentsatik hasita.

Euskal Herrian masa-kultura azkar onartzeak harremana du mendean zeharreko euskal modernizazio industrial eta hiritarrarekin, baina baita euskal kultura herrikoia zenbait praktika eta usadiorekin ere (ahozkotasuna/entzutea, talde-ikuskizuna/zinema ikustea). Emaizta gisa, gaur egun masa-komunikabideen kontsumo handia dago eta irakurketa-, entzute- eta ikuste-maila garrantzitsuak ere badaude, hurrenez hurren, liburuarentzat, diskoarentzat eta zinemarentzat.

Hala ere, euskal kultura herrikoia ikur, estereotipo eta hizkuntza musikan baino ez ziren sortu halako oroimen historiko bat berreskuratuta.

EAEn eta Nafarroan prentsa euskaraz irakurtzea oso urrun dago gaur egungo hizkuntz ezagutzaren batez bestekotik, nahiz eta prentsa-hedapenaren indizea Europan dagoen mailakoa izan. Gauza bera esan daiteke zinemaz eta, neurri apalagoan, euskarazko telebistaz. Oraindik ere ohitura moduan ordaintzen ari gara euskararen zampaketa eta euskara familiararen eta harremanen esparrura baztertu izanaren ondorioak. Horri erantsi beharra dago euskalkien eta euskara normalizatuaren arteko ezinbesteko doikuntza falta eta alfabetatuen eta alfabetatu gabeko artekoa. Horrek normalizazioko zama arazo hori ez duten belaunaldi berrien heziketa osora eramaten du.

Irratian aitzindari-erparen bat izan zen, programak eta soinuak emateko gailu industrializatu gisa. Geroago **telebistak** gizarte-onarpen berezia izan zuten.

Irratia, beste kultura-sistema edo komunikabide batzuk baino askoz ere gehiago, kapitalismo taylorzaleko kontsumo-ereduetara lotutako masa-kulturaren hasiera izan zen. Irratia gizarteko entretenimendua izan zen gero telebista ezartzeko, zeina 60ko hamarkadan laster gauzatu baitzen (Espainiako estatuko ekonomia garatuetan batez ere).

Lehenbizi irrati libreen eta gero elkarteen edo udalen irrati eta telebisten mugimenduak 70ko eta 80ko hamarkadetan Katalunian lortutako indarrak izan ez bazuen ere, komunikabideetako gizarte-kezka gisa oraindik ere errepikatzen diren bere adierazpideak izan zituen.

Dena den, euskarazko irratiaren Trantsizioa baino lehen oso maila apalekoa izan zen, gero COPETik bereizitako Donostiako eta Bilboko Herri Irratien ekarpena berezia izan bazen ere. EITB sortu arte itxaron behar izan zen, garatu eta modernizatzeko.

80ko hamarkadan bi eginkizun egon ziren: batetik film esanguratsuak produzitzea –ia "euskarazko eskolaz" pentsarazten zuena– eta bestetik telebista, EITB, irudiz hornitzea. Egoera horrek une distiratsua eta euskal ikus-entzunezkoetan saiakuntzaz betetakoa sorrarazi zuen, nahiz eta zinemagintzari dagokionez sendotu ez bazen ere.

ETB irudi-fabrika eta giza baliabide tekniko edo artistikoen baliabide askoren sehaska bihurtu zen. Horrela, herriaren kultura-normalizaziorako eta modernizaziorako adierazpen-esparru batzuen alde apustu egin zen; baita euskararen homologazio eta erabilera-hedapenaren alde ere. Dena den, oraindik ere zintzilik dago euskarazko zinema onartzearen –eta are gehiago produkzioaren– gaia.

Euskarazko irudiei dagokienez, lehenago egindako merezimenduko lan batzuk alde batera utzita, batez ere, ETB izan da telefilmaren produkzio-jarraitasuna eta telefilmak, euskaratutako pelikula edo serie amerikarrak edo ikus-entzunezko genero anitzeko produkzioa ikustea segurtatu duena.

Gaur egungo egoeran kontraste garbia dago ikus-entzunezkoetan eskarmentua duten sormenezko giza baliabideen eta Euskal Herrian neurri batean duten aukera faltaren artean, dela ikus-entzunezkoak Madrilén zentralizatuta daudelako –hara joan dira sortzaile eta enpresa batzuk–, dela sektorean garapeneko dinamikak galdu direlako eta behar adinako laguntzen gabezia dagoelako.

2. NAZIOARTEKO ETA HURBILEKO ZENBAIT ERREFERENTZIA

2.1 *Ikus-entzunezkoak Europan*

Europako ikus-entzunezkoen sektoreak milioi bat enplegatu ditu eta Batasuneko BPGren % 0,7 hartzen du¹⁰.

Europako ikus-entzunezkoen sektorea herrialdeka analizatuz (hor TB, irrati, zinema, bideoa eta aisialdirako softwarea sartuta), ikusten da Erresuma Batuak, Alemaniak eta Frantziak ikus-entzunezkoen merkatu horren % 70 inguru hartzen dutela. Italiak eta Espainiak batera % 17 inguru hartzen dute eta Europako gainerako herrialdeak aurrekoetatik oso urrun daude, European Audiovisual Observatory erakundeak egindako azterketaren arabera.

Eurostat-ek dioenez, 2000. urtean publizitate ikus-entzunezkoen diru-sarrerak (zeinak 90eko hamarkadan lehen halako bi izan baitziren) Europako telebistako sektorean sarrera-iturri nagusia ziren (% 48), gero finantzaketa publikoa zegoen (% 30) eta ondoren abonatu-kuotengatik sarrerak (% 22).

Azken urteotan ikusle-kopurua igo egin da (641,5 milioi ikusle 1995ean eta 844,5 milioi ikusle 2000. urtean).

Ipar Amerikako zinemagintzako produkzioen merkatu-kuotak behera egin zuen aretoetako Europako merkatuan, 2000. urteko % 73tik 2001. urteko % 65eraino, European Audiovisual Observatory erakundearen arabera. Horrek eragin baikorra izan du Europako zinemagintzako industriak izan dezakeen hazkundeari dagokionez. Baina telebistako fikziozko merkatuaren % 70ek eta telebistako zinema-merkatuaren % 80k handiagotuta erakusten dute USA zinemagintzak¹¹ Europako aretoetan dituen ikusleen nagusitasuna, zeina orain 10 urte baino

¹⁰ Europako Elkartearen Batzardeak egindako "Principios y directrices de la política comunitaria en el sector audiovisual en la era digital" txostenaren arabera.

¹¹ Zenbait arrazoi dela medio, arrakasta handia du: finantzatzeko ahalmena izugarria denez (Europan baino bost aldiz gehiago inbertitzen du biztanleko), bere produktuak inbertsio handikoak dira. Bere merkatua globala da eta lortutako ikusleko kostua minimizatu egin dezake, banaketa kontrolatu egiten du eta erakustea gero eta gehiago, eta duen film-lengoaia populista da.

10 puntu handiagoa baita. Zinema-aretoa arrakastak markatzen du gero film horrek telebistan ustiatzeko ordaindu beharko dena.

Beraz, Europako telebistek zinerako duten gastuak mesede egin dio USAko zinemagintzari. masa handiak USAko zinema nahi baldin badu ere, zentzuzkoagoa litzateke Europako telebistetako sarrerak (bai pribatuetakoak eta bai publikoetakoak, eta, batez ere, azken horiek) batez ere Europako ekoizpenak berrelikatzea, erakusteko edo ustiatzeko eskubideak erosita (paseagatiko ordainketa) edo produktuak finantzatzeko antena-eskubideak aurreratuta (produkzioarako aurreratzea), edo koprodukzioak egitea (egin behar den ekoizpenari buruzko jabego-eskubideak partekatuz erostea).

Alde batera utzita kultura orok beren irudiak ekoizti behar dituztela beren bizitzaren eta ametsen ispilu gisa, eraginkortasun-arlo hutsean ere ez da zentzuzkoa Ipar Amerikako zinemari lehentasuna ematen jarraitzea. Europako produkzioentzat izan daitekeen merkatuaren zati bat xurgatzen du eta haiek baztertu egiten ditu gero eta defizit handiagoa sortuta.

Gainera zinema-arloko banaketak kontzentrazio-indize handiak ditu. Hiru banatzaile handienek ia % 50eko merkatu-kuota bereganatzen dute.

Bideoak alokatuta Europan egiten diren salerosketak azken urteotan ugartu egin dira (622 milioi salerosketa 1995ean, 752 milioi 2000. urtean). Erresuma Batua da salerosketa gehien duen herrialdea (guztizkoaren % 25), bigarrena Espainia da, baina oso urrun dago (guztizkoaren % 12); dena den, azken horrek salerosketa-bolumena 1995. urtekoa baino bi aldiz handiagoa izan zuen 2000. urtean.

DVDen alokairua eztanda moduan hazi da Europako Batasunean 1998 eta 2000. urte bitartean, nahiz eta oraindik VHS bideoen alokairuarekin alderatuz oso urrun egon. DVDen salmentak ere esponentzialki igo dira Europako Batasunean eta Erresuma Batua eta Frantzia dira gehien saldutako herrialdeak.

Beste formatu batzuen ondoan tamaina txikikoa den arren, Interneteko ikus-entzunezkoen merkatua bidea irekitzen ari da, nahiz eta neurri batean kateetako programa arrakastatsuen osagarri gisa izan.

Europako ikus-entzunezkoen ekoizpenak (zinemagintzan, telebistan...) oraindik ere ez ditu lortu nahi diren emaitzak. Honako gai hauei buruz jendea jakitun da: Europako produkzio-ahalmenaren ahuleziak, AEBekiko telebista indartsuak izatearen abantailaz, telebistek zinema ugari erabiltzeaz eta Europako zinemagintzarekin erantzukizunak hartzeaz, koprodukzioak sustatu beharraz... Giro hori zuzentzen saiatu ahal izateko, Europako Administrazio Publikoak (Batasunekoak, estatuetoak eta lurraldeetoak) Europako ikus-entzunezkoen industria garatzeko politikak bultzatzen ari dira.

Hona hemen Batasuneko ekimen esanguratsuenak:

Ikus-entzunezkoen Europako Behatokia,

Media Plus programa (400 milioi euroko aurrekontua 2001-2005 urte bitartean), helburu hauekin: ikus-entzunezkoen eduki paneuroparraren banaketa areagotzea; produkzio aurreko faseak sustatzea (inbertsioa, plangintza, sorkuntza, etab.); teknologiko eta produkzioa kudeatzeko profesionalen trebakuntza hobetzea.

“i2i Audiovisual” programa eta funtsa, zeinak lehengo Batasuneko ekarpena halako bi baino gehiagokoa baitu¹².

“Mugarik gabeko Telebista” Arzetaraua, Batasunaren barruko elkarrekintzak areagotzeko.

EUREKA antolamendua, ikus-entzunezkoetan elkarlan paneuroparra sustatzeko.

Eurimages programa, Europako Kontseiluaren programa paneuroparra kultura nazionala eta Europako zinema-industria sustatzeko.

European Film Promotion erakundea, Europako filmak, oro har, sustatzeko institutua.

“e-Europe 2002” ekintza-plana, Internet azkarragoa, merkeagoa eta seguruagoa izateko, Interneten trebatu eta erabilera sustatzeko eta eduki digitalak sortzeko. “e-Europe 2005” planak

¹² Ikus-entzunezko industriaren produkzio- eta finantza-arloei laguntzeko, i2i ekimena Lisboako 1999ko goi-bileran sortu zen. 500 milioi euro ditu hirurteko baterako. Inbertsioetarako Europako Bankuaren eta Inbertsioetarako Europako Funtsaren laguntza du, ikus-entzunezkoetan konpromisoa duten bankuen sektorerako kreditu-lerroekin; telebista-taldeentzako finantzaketa-lerroekin; arrisku-kapitaleko funtsen finantzaketarekin eta beste zenbaitekin (ikus-entzunezko enpresen finantzaketari buruzko trebakuntza, banatzaileen arteko elkarlana...).

berriz, honako hau lortu nahi du: zerbitzu publiko modernoak *on line*; negozio elektronikoentzat esparru dinamikoa; informazio-azpiegitura segurua eta banda zabalaren garapena.

2.2. *Ikus-entzunezkoak Espainiako Estatuan*

Espainia bosgarren dago Europako zerrendan ikus-entzunezkoen merkatuaren tamainari dagokionez. Madrilgo eta Kataluniako autonomia-erkidegoek industriako sarreren % 90 hartzen dute. Ehuneko hori handia da, batez ere, estatuko kanal handiak Madrilgo Erkidegoan daudelako (RTVE, Telecinco, Antena 3, Canal +, Vía Digital...).

Espainiako kasuan oso egoera defizitarioa dago ikus-entzunezko ondasunei dagokienez (pelikula, disko eta zintei dagokienez)¹³, eta horiei ikus-entzunezkoen zerbitzuetan duen 879 milioi euroko defizita gehitu beharko litzaieke (produkzioa, programak, ordainketak, emankizunak...). Beraz, guztira 1.215 milioi euro dira eta bere produkzioetarako dagoen marjinaren tamaina adierazten du.

Baina agian zifra esanguratsuenak ikus-entzunezkoak osorik hartzen dituztenak izango dira (aparatuak eta euskarriak barne hartuta), hau da, guztira etxeetako kultura-kontsumoaren % 43: 3.823 mila euro (1.278 milioi, aparatuak, euskarriak eta konponketak kanpo uzten badira) kultura-ondasun eta zerbitzuetan guztira diren 6.765,8 milioi euroetatik, ondoren prentsa eta liburuak (% 34,2), etxebizitzako informatika (% 13,2), ikuskizunak eta musika (% 4,7) eta beste zenbait (% 5,4) izanik. Ehuneko horiek 1993an zeudenekiko oso bestelakoak dira, gizarteak ikus-entzunezkoen beti izan duen lehenetsuneko etengabeko joeraren barruan.

Kultura-kontsumoan ikus-entzunezkoen gorakada ikus-entzunezkoak beren egiazko kostuetara hurbiltzeko dagoen joerarekin eta erabiltzaileak –idazketa/irakurketako azpisektorean gertatzen den bezala– kostu horiek gero eta gehiago bereganatzearekin batera doa, ikus-entzunezkoen editorializazio eta pribatizazio prozesuan (ordaintzeko kanalak, bideoak, satelitea...).

Espainiako estatuaren kasuan kultura-eskaera guztiak hazi egin dira joan den hamarkadan (liburuak, egunkariak, liburutegiak, ikuskizunetara joatea, irratia, telebista, bideoa...), baina hauek nabarmendu dira: zinemara joatea (1991. urtean 79 milioi ikusle izatetik 2000. urtean 135 milioi izateraino) eta ia lehen halako hiru izan diren diru-sarrerak (186 milioi eurotik 536 milioi euroraino, nahiz eta ikusle-kopurua 1991 eta 2000. urte bitarteko % 71eko erritimoan baino txikiagoan igo¹⁴), 25 milioi aleko tirada -3.859 izenburu- alokatu eta saltzeko bideoan, eta telebistan egunero % 90eko entzuleria¹⁵.

Azken 5 urteotan telebisten eragiketengatik sarreren hazkunde-erritimoa (irratian, telebista pribatuan, telebista publikoan, ordaindutako telebistagatiko kuoten, diru-laguntzen eta abarren sarrerena) zerbait moteldu egin da publizitateko krisiaren eraginagatik.

Kable bidezko telebistak 600.000 harpidedun ditu eta satelite bidezko ordainpeko telebistak 1.500.000 harpidedun inguru.

Azken hamarkadan TVE1 buru izan arren, urtez urte bere ikusle-kopuruaren kuota ("share" izenekoa) jaitsiz joan da telebista pribatu eta autonomikoen mesedetan.

Telebisten eta zinemaren artean beste harreman bat dago¹⁶. Telebistek dituzte ikus-entzunezkoetan aurrekontu handienak¹⁷, eta orain ez dira batez ere ekoizleak, operatzaile/programatzaileak baizik. Produkzioaren zati handi bat kanpoan egindakoa da¹⁸ eta 90eko hamarkadan jauzi kualitatiboa izan du, industria-egitura adierazgarria lortzeaz gain. European ikus-entzunezkoen produkzio-sarea sortzeko egiten ari den ahalegina (telebista produkzio-ardatz nagusi izanik) oso handia da eta berekin du sorkuntza-berpizkundera, *prime time*-rako serie-produkzioa, gero eta kontsumo handiagoa eta merkatu berriak sortzea (ordainpeko telebista...).

¹³ 422,5 milioi euro inportazioetan eta 116,4 milioi besterik ez esportazioetan; beraz, 2000. urterako 336 milioi euroko defizita eman zuen.

¹⁴ Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa: "Las cifras de la cultura en España", Madril 2002.

¹⁵ Grabatutako musikaren kasuan, sarrerak handiagoak badira ere (ia 600 milioi eurokoak), zenbait arrazoi dela medio atzerakada dago, nahiz eta musikak gero eta eske handiagoa izan.

¹⁶ Zinemari dagozkion datuak (J.M. Alvarez-Monzoncillo) eta telebistari dagozkionak (E. Bustamante) E. Bustamantek koordinatutako "Comunicación y cultura en la era digital. Industrias, mercados y diversidad en España" liburukoak dira, Gedisa 2002 eta B. Diaz-en "Informe Anual de la comunicación 2000-2001", liburukoak, Grupo Z. 2001.

¹⁷ 4.188 milioi euro, oro har, Espainiako estatuan 1999an eta 106,3 milioi euro ETBren kasuan.

¹⁸ 1999an Espainiako estatuan bertako produkzioa ia 600 milioi eurokoa zen (100.000 milioi pezetakoa) eta horien % 72 *produkzio independente*koa zen. Kopuru osoaren laurdena baino zerbait gehiago (% 27) era guztietako fikzioa zen (batez ere, telesailak eta zinema).

Produkzioak ugaritu egin dira eta eragin handia izan dute enpleguan, baina, hala ere, arazo garrantzitsuak daude: finantzaketa-premia, banaketara heltzeko zailtasuna, eskala-ekonomia gutxi, telebistek duten eskubide-jabegoa, eskatzaileak arriskuak hornitzaile/ekoizleengana kanporatzea... Gainera mendekotasuneko kontzentrazioa dago. Enpresa ekoizle esanguratsu asko Espainian kateetara loturik daude. Zazpi enpresak (Gestmusic-Zeppelin-Endemol, Mediapark, Arbol-Globo, Europroducciones...) hartzen dute sortutako denboren % 50 eta ekoizpen independenteak dituen sarreren % 63.

Telebisten programazioa, batez ere *prime time*-n, neurri handi batean fikzioaren (estatubatuarraren, nazionalaren edo europarraren)¹⁹ mende dago, batez bestekoa % 12koa izanik (kanal askoren parrillaren % 40 hartzeraino). Fikzioaren barruan zinema da produktu nagusia, batez ere, arrakasta izandako filmen estreinaldiak eta berrestreinaldiak. Ez da ahaztu behar goizaldera betelana egiten dutela. Espainiako Estatuan 13.179 film luze eman dira 18.750 ordutan urte bakarrean (2000. urtean, hain zuzen).

Zinema gartzatu egin da. Telebistako ohiko produktua ere bada, aretoak berpiztu ondoren aretoetakoa izateari utzi gabe. Zinema gehien erabiltzen duten operadore komertzializatzaileak telebistak dira eta zinemaren diru-sarreretan telebistari dagokiona da nagusi²⁰.

Oso arrazoizkoa da negozio-bolumen handiena duten eta zinema gehien erabiltzen duten enpresek ugaritzeari (hau da, produkzioari) laguntzea; izan ere, oso garestia da (300 milioi pezeta batez besteko film bakoitza, 1,8 milioi euro, eta 100-150 *telemovie*-ak direnean) eta gainera oso kaskarrak dira banatzaileen aurrerakinak. Hori gertatzen ari da. Telebista da zineman lehen inbertitzailea. Ekoizleak bere diruarekin edo besterenarekin ekarpena eginda filmen finantziazioan % 25 ordaintzen du. Telebistek eta lehen Mugarik gabeko Telebistaren arteztaraua (% 5 famatua) ezarri baino lehen, % 27ko ekarpena egiten zuten²¹, eta gainerakoa banaketa eta bideoak banatzaileen aurrerakinek, laguntzek eta kredituek hartzen zuten.

Egia esan zinemagintzako industriak gero eta baliabide gehiago konprometitzen edo eramaten ditu. 1990eko 170 milioi eurotik 2000ko 755 milioi euroraino iritsi da, hots, % 300eko igoera izan du, bere oinarrizko hiru azpisektorek igoera esponentziala izan dutelako.

Hala ere, Espainiako kasuan AEBekin duen merkataritza-defizita 1990ko 35 milioi eurotik 2000ko 240 milioi euroraino igo da.

Horregatik, Espainiako estatuaren kasuan telebista guztien joera Espainiako zinemagintzan inbertitzea da. 1990ean 12 milioi euro inbertitzetik 2000. urtean 81 milioi inbertitzera iritsi dira (FAPAE) -6,7 aldiz gehiago-, eta areagotzeko joera dago Zinemari buruzko Arteztarauaren eta Legearen eraginez²². Ez da diru-laguntza, inbertsioa baizik, nahiz eta bere arriskuak izan.

Jokabide horren emaitza da Espainiako produkzioak 1995. urteaz gero gorabeherak dituen igoera izatea²³ eta zenbait telebistak lagundu izana.

2012. urtea baino lehen “analogikoa itzaltzea” deitzen dena gertatuko baldin bada ere, orain arte irekiko TDT edo ordainpekoek porrot egin dute.

Bideoak alokatu eta erosteagatik salmentak igo egin dira azken urteotan (VHSak alokatzea % 57,4 igo da 1992 eta 2000. urte bitartean. DVD formatua gero eta gehiago sartzeak ere lagundu dio bideogintzako industriari indartzen.

Azken urteotan Interneten erabileraren bilakaera nabarmendu da beste komunikabideen ondoan, baina ez du balio izan Europako Batasuneko maila lortzeko. Gainera, autonomia-erkidego batzuen eta besteen arteko desberdintasunak nabariak dira. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Katalunia dabilta maila positiboan.

¹⁹ Espainiako estatuko telebistek fikzioa 9.946 ordu programatu zituzten, eta horietan % 22 (2.255) Espainiako estatuan ekoizitakoak ziren.

²⁰ Zinemaren sarrera-bolumenik handienak jadanik ez dira aretoetakoak (ez da % 10era iristen), telebistetakoak baizik (2000. urtean 81 milioi euro inbertitu dituzte, 1999an baino zazpi eta erdi aldiz gehiago) eta gero bideotakoak. Aretoak eta diru-laguntzak ekoizpen-kostuak estaltzeko lain ere ez dira.

²¹ Zinema (AEBetako eta Europako filmak) Espainiako estatuan telebistako emankizun guztien % 17,4 da.

²² Espainiako zinema 1998 eta 2000. urte bitartean 1.273 emanalditik 1.845era iritsi da.

²³ 2002. urtean, adibidez, produkzioa 2001. urtekoa baino txikiagoa izan da. 2001. urtean 112 pelikula egin ziren. Dena den, kopuru handiegia da kontuan hartuta aurreko hamarkadan urtean 60 film inguru egiten zirela.

Administrazio Zentralaren laguntzei dagokienez:

-Ikus-entzunezkoen esparruan zenbait erakunde publiko daude. Garrantzitsuena ICAA (Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua) Espainiako Gobernuak zinemagintzarako ematen dituen laguntzak banatzen dituelako. 2002. urtean 42 milioi eurokoak izan ziren.

-Ikus-entzunezkoen esparruan beste erakunde orokorrak ere badira: Kreditu Ofizialeko institutua (ICO), ikus-entzunezkoak finantzatzeko berariazko lerroak eskaintzen dituena; ICEX (Kanpo Merkataritzako Institutu Espainiarra), zeinak enpresa espainiarrak nazioarteko bihurtzeko berariazko programak baititu.

-Arau garrantzitsuenak hauek dira:

- 15/2001 legea, uztailaren 9koa, zinematografia eta ikus-entzunezkoen sektorea sustatzeko eta bultzatzeko.
- 526/2002 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, zinematografia eta koprodukzioko filmak egitea sustatzeko eta bultzatzeko neurriak arautzen dituena.

2.3. Ikus-entzunezkoak autonomia-erkidegoetan

Ikus-entzunezkoen sektorearen aurrerakada industria horien deszentralizazioaren kaltetan ari da gertatzen; izan ere, ikus-entzunezkoen baliabide-kontzentrazio handia ari da gertatzen Madrilen. *Birzentralizazioa* dago. Ikus-entzunezkoen guztizko BPGaren 2/3 daudela zenbatetsi da. Oro har, kultura-baliabideek, publikoek eta pribatuek, Espainiako estatuaren guztizko BPGaren % 40 hartzen dute –eta hazten ari da–, nahiz eta BPG orokorrean duen parte-hartzea % 17,09 izan. Baliabideen (ia bi heren, % 63,4) eta kultura-eskulanaren (% 55) pisu nagusia eta zentralizatzailea Madrilen eta Bartzelonan gertatzen da, baina Madrilek ihes egiteko joera du –aglomerazio- eta irismen-ekonomiengatik– kultura-produkzioan (bere lurraldeko BPGaren % 11,5, hain zuzen; hau da, Katalunian sektoreak duena halako bi). Hori oso kezagarria da, eta are gehiago ikus-entzunezkoetan.

Autonomietako Administrazioak ekimen-multzoa garatzen ari dira ikus-entzunezkoen prozesuan parte hartzeko:

Katalunia

-Kataluniako Kultura Industrien Liburu Zuria argitaratu da (2002ko abendua). Sektorearen egoera analizatzen da eta ekimen publikoek arlo horretan dituzten lehentasunak adierazten dira.

-Ikus-entzunezkoen esparruan zenbait erakunde publiko daude: Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseilua (erakunde horren eginkizuna da eskubideak eta askatasunak errespetatzen direla zaintzea eta ikus-entzunezkoen buruzko arauak betetzen direla bermatzea), Kultura Industrien Institutu Katalana (ICIC; Kataluniako ikus-entzunezkoen produkzioa kanpoan sustatzeaz arduratzen da), Kataluniako Generalitatearen Filmoteka eta beste zenbait dokumentazio-zentro.

-Laguntza-programa garrantzitsua du, ikus-entzunezko edukiak ekoitzi, banatu eta erakusteko, Kataluniako hizkuntza sustatzeari indar emanez.

-Institut Català de Finances (ICF; kapital publikoa duen erakundea da, Kataluniako Generalitateko Ekonomia eta Finantza Kontseilaritzari atxikitakoa) eta antzeko erakunde publikoek Kataluniako ekonomiako sektore pribatuari eta publikoari finantzaketa erraztea dute helburu. Aipatutako erakundeak bere nortasun juridikoa, ondarea eta altxortegia ditu; baita bere helburuak lortzeko kudeaketa-autonomia ere. ICF erakundeak maileguetarako lerro berezia du ikus-entzunezkoen ekoizpeneko sektorean inbertsioak egiteko.

- Hartzaileak: zinemagintzako eta ikus-entzunezko enpresa ekoizleentzat, Ikus-entzunezkoen Ekoizle Katalaneko (PAC) edo Bartzelona Ikus-entzunezkoak, Ekoizle Katalanen Elkarteko kide direnentzat.
- Helburua: film luzeen proiektuak, telesailak, telebistarako pelikulak (PACek edo Bartzelona Ikus-entzunezkoak prestatutako ikus-entzunezkoen ekoizpen-planean barne daudenak).

Hauek dira beste finantzaketa-tresna batzuk: ikus-entzunezkoen ekoizpeneko berme-funtsa (ICF) eta Invermedia Audiovisual erakundeak (hori ere Ekonomia eta Finantza Departamentuak Europako Inbertsio Bankuarekin eta Media programarekin elkarlanean sustatua) emandako kapital-arriskuko funtsak.

Valentzia

- Valentziako Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria prestatzen ari dira.
- Valentziako RTV pribatizatzekeo prozesuari hasiera ematen ari dira.
- Orain Alacanteko "Argiaren Hiria" proiektua gauzatzen ari dira. Europako zinemagintza eta ikus-entzunezkoen ekoizpenerako industria-multzo osatua izatea nahi dute. 80.000 metro karratu eta 11 plato (horietako bat uretakoa) izango ditu. Argiaren Hiria inauguratuta, Valentziako Generalitateak Zinemagintza eta Ikus-entzunezkoak Sustatzeko Bulegoa martxan jarriko du ("Film Commission" moduan), eta informazio, aholkularitza eta dokumentazioko zerbitzuak eskainiko dizkie Valentziako Erkidegoan lan egitea erabakitzen duten ekoizleei.

Andaluzia

- Ikus-entzunezkoen esparruan zenbait erakunde publiko daude: "Andalucía Film Commission", Ikus-entzunezkoen Kontseilu Goren Andaluzia, "Antena Media Andalucía", Kultura Programak Kudeatzeko Enpresa Publikoa.
- Nahiz eta pribatua izan, azpimarratzekoa da Andaluziako Ikus-entzunezkoen Fundazioak bultzatutako sustapen-multzoa: Andaluziako ikus-entzunezkoen industria nazioarteko egiteko plana, Andaluziako ikus-entzunezkoen sektorearentzako plan estrategikoa, lanbide-heziketako ikasturte berrien garapena...
- "Andalucía Digital Multimedia" (ADM) enpresa mistoa da, eta hauek sustatu nahi ditu: ikus-entzunezkoen sektorearentzat teknologia-sistemen ikerketa eta garapena, gaikako kanaletako eta multimediamiako ekoizpena eta trebakuntza espezializatua.
- Sevillan Irudiaren Hiria sortzen ari dira, hiri horretan ikus-entzunezkoen sektorea bultzatu nahian.
- Ikus-entzunezkoak ekoitzi eta sustatzeko eta profesionalak trebatzeko laguntza-programa berria. Programak Europan erreferentzia izan nahi du.

Galizia

- Erkidegoa asmo handiko sustapenak bultzatzen ari da. Honako hauek, adibidez: "Galiziako Ikus-entzunezkoen Sektoreko 2002-2005 Plan Estrategikoa" prestatzea.
- Era berean, beste erakunde publiko eta pribatu batzuk sortzen ari dira Galiziako ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko. Hauek, adibidez:
 - Galiziako Ikus-entzunezkoen Partzuergoa, Kultura eta Ekonomia Kontseilaritzek (Galiziako Xunta), Galiziako Irrati Telebistako Konpainiak (CRTVG) eta bertako produkzioa sustatzeko Probintzietako Aldundiek eratuta.
 - Academia Galega do Audiovisual, Galiziako ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak batu eta bideratzeko.
 - Kulturaren Hiria, zeinak Galiziako Ikus-entzunezkoen Zentroa izango baitu eta horrek Galiziako kulturaren ikus-ondare osoa hartuko baitu.
- Ekonomia Sustatzeko Institutu Galiziarra (IGAPE) erakunde publikoa da, eta helburutzat Galiziako ekonomiaren sektore pribatuari eta publikoari finantzaketa bideratzea du. Ikus-entzunezko sektorearentzat berariazko mailegu-lerroak ditu:

- Helburua: film luze, telemovie, dokumental, animazio, fikzioko telesail txikiak eta telesail-pilotuentzako proiektuak.

- Finantzatzeko beste tresna batzuk hauek dira: AGAPI (ekoizleen elkarte), TVGA eta ICOk TVGArentzat ekoizpenak finantzatzeko sinatutako hitzarmena eta Xesgalicia-ren kapital-arriskurako funtsa.

Madril

- Ikus-entzunezkoak sortu eta ekoizteko laguntza-programa du, baita profesionalak trebatzeko ere; baina abantaila nagusia Espainiako baliabide, telebista eta ikus-entzunezko enpresa gehienak edukitzea da.

- Madrilgo Irudiaren Hiria helburutzat ikus-entzunezkoen lurraldeko sektorea espazio bakar batean biltzea du (100 hektarea)²⁴.

3. DIAGNOSTIKOA

3.1. Definizioa, egitura eta ezaugarriak

3.1.1 Definizioa: ikus-entzunezkoen aurpegia eta gurutzea

Ikus-entzunezkoen azpisektorearen azterketak ikuspegi bikoitza erakusten du, eta hor barne-indarguneekin batera egiturazko ahuleziak daude, eta kanpo-aukerek batera mehatxuak.

Aurpegia

Gero eta produkzio handiagoa duen sektorea da eta bizkor ari da hedatzen; gero eta erakargarriagoa da kapitalentzat eta erabaki ekonomikoen mende dago.

Etengabeko eta konbinatutako berrikuntzen lehentasunezko eramailea da.

Balio erantsi handikoa da eta sormen-dosi handikoa, gehienetan oso lan kualifikatua duena.

Nazioarteko bihur daitezkeen merkatuak ditu, nahiz eta sartzeko hesi garrantzitsuak izan.

Bertako inbertsioak berez dira berritzaileak, baita beti prototipoak diren produktuak daudenean ere.

Deszentralizaziotarako gai da eta lurraldeko ekonomietan eragin handia du.

Enplegu-txoko garrantzitsuak ditu, kualifikatuak, balio anitzekoak, baina behin-behinekoak, produktuei lotutakoak.

Oso zehar-eragin nabarmenak ditu beste sektoreetan sorkuntzaren, trebakuntza aplikatuaren, produkzioaren eta eskarien alorrean.

Gizarteak, erakunde publikoek eta enpresek gero eta gehiago eskatzen dute.

Eskaintzaren zati bat gero eta zatikatuagoa, espezializatuagoa, pertsonalizatuagoa, ordaindutakoa da, eta eskariei erantzuten die, aldi berean, masa-kultura mantentzen duela.

Erakundeei erantzuteari lehentasuna ematen zaio, era askotako eraginak dituelako, eta batez ere kulturen etorkizuna jokatzeko esparrua delako, zeina Irrati eta Telebistako zerbitzu publikoen eginkizun berrietan ikusten baita.

Gurutzea

Azkar aldatzen diren balio sinbolikoek baldintzatutako industria batzuen merkatu-gorabeheretan duen ahulezia.

Bideragarriak diren produktuak ere azkar zaharkitzea.

Diferentzialtasunagatik kostuak gero eta handiagoak dira, eta sorkuntzako/ekoizpeneko zenbait tartetan, oztopoa ipintzen dio lana kapitalaz ordezkatzeari.

²⁴ Ikus-entzunezkoen jardueretako zentro integratua da. Ekoizteko platoak, bikoizteko estudioak, kanpoaldeak filmatzeko esparruak, administrazio-zerbitzuak, merkataritzakoak, aisialdikoak, etab. ditu. Irudiaren Hirian hauek daude: Vía Digital, Telemadrid, Kinopolis (Multizineak), FAPAE (Espainiako ikus-entzunezkoen ekoizleen elkarten federazioa), Egeda (Ikus-entzunezkoen eskubideak kudeatzeko erakundea), ECAM (Madrilgo Erkidegoko zinematografia-eskola)...

Kontzentrazio/transnazionalizazioko eta lan-prozesuen zatikatzeko prozesu bikoitzak izaten dira. 80/90eko zerbitzu publikoen krisiak ez zien lagundu, baina kultura-produkzioko kuotengatik geroago egindako apustuak pizgarri nagusia dira Europako ikus-entzunezkoetan.

Arazoak ditu kalitatean aurrera egiteko, noizbehinka izan ezik; izan ere, lehia eskariagatik da eta horrek nahitaez ez du eskaintza hobetzen. Eskaintza gero eta populistagoa da telebistan eta batez ere *talk-show* eta *info-show* izenekoetan.

Teknologia eta sorkuntzako *training*-ak –lanean etengabeko birziklapena eskatzen du– pisua du, batez ere, erakunde publikoetan (diru-laguntzak, laguntzak, hezkuntza-sistema, trebakuntza okupazionala eta etengabea).

Aktiboetan aldakortasun handia dago.

Heldutasunera iristeko denbora luzea da, produktu bakar gutxiko urteko ekoizpenei dagokienez.

Ordainketako leihatiletako zirkulazioa motela da (4 edo 5 urtekoa zenbait kasutan), nahiz eta merkatu edo leiho bakoitzetik igarotzea oso azkarra den.

Merkatuak oso desberdinak dira eta errenta, kultura-maila, nortasun eta garapenarekin lotuta daude. Nazioarteko eta produkzio nahiz munduko merkatuen egiturazko nagusitasun nabariak daude.

Talde gutxi batzuen inguruan kontzentrazio selektiboa eta bereizlea egiteko joera dago, baina horiek ere ahulak dira gainprodukzioaren, arriskuzko gaininbertsioaren, finantza-hiperbalorazioaren eta neurririk gabe zorpetzearen aldetik.

Sektorera atzerriko kapital handiak sartzen dira, beren logikak dituztenak (finantza-taldeak, telekomunikazio eta informatikako taldeak, merkataritza elektronikoarekin zehar-eraginak dituztenak...), baina beti ez daude hain berezia den kultura-sektorera moldatuak.

Birzentralizazio geografikorako joerak ikusten dira, baita arriskuak mugatzeko arrazoiak direla medio ere.

Laguntza publikoarekiko eta etxeko gastuaren guttizkoarekiko ahulezia dute (batez ere krisialdian alde batera utz daitezkeen gastuak).

3.1.2. *Jarduera ekonomikoen egitura: zinema, TBrako produkzioa eta enkarguzko bideoa*

Ikus-entzunezkoen osotasuna balira bezala hitz egin behar da, bai beren adierazpide eta hizkuntza komunengatik, bai jardueren eta aukeren arabera arlo batean edo bestean diharduten enpresa askoren eginkizun anitzen arteko loturengatik²⁵.

Dena dela, desberdintasunak daude adar edo azpi-adar batzuen eta besteen arrisku eta jarduera-ereduen koadroan.

Zerbitzu teknikoaren enpresak edo berri-emankizunetako enkarguen edo azpikontrataturiko segmenturen bati arreta eskaintzeko (soinu, bikoizketa, postprodukzio eta abarreko) enpresak enkargu-bolumenen eta batez besteko tarifen mende daude. Azken horiek, era berean, merkatu-bolumenaren eta eskari-oligopolioak prezioetan egiten duen presioaren mende daude. Oligopolioa, batez ere, hauek eraten dute: telebista handi eta ertainek, zerbitzuak kontratatzen dizkieten pribatuek edo publikoek, eta, gainera, zinemako eta telebistako ekoizleak. Teknikoki zaharkitzea eta urte gutxiren buruan berrinbertsioa egitea alde batera utzita, arriskua neurri batean ezabatu egiten da kontratu egonkorak baldin badituzte. Dituzten finantzaketa-premiak begi-bistakoak dira.

Telebistarako ekoizleak harreman-motaren mende daude. Arriskua txikiagoa da enkargua baldin bada, eta, beste neurri batean, koprodukzioa baldin bada. Hala ere, ikusleria/entzuleriak ordu jakin batean edozein telesailentzat kate batek ezinbestekotzat jotzen duen batez bestekoari erantzuten ez badio, produkzio-etxeak irabaziak murriztea eragingo du edo egindako inbertsio-zatian galerak izango ditu. Nolanahi ere, galera nagusia programatzen zuen kanalean izango da, publizitatetik behar adinako sarrerak lortu ez dituelako eta beste apustu bat egin beharko delako. Arriskua are eta handiagoa da beste harreman-mota batzuetan.

²⁵ Egiten jakitean oinarria izanik, gehienetan oso txikiak diren enpresak txandaka aritzen dira telebistako produkzioan eta beste produkzio-etxeei edo telebistei zerbitzu jakin batzuk eskaintzen, edo telebistarako eta zinerako produkzioaren hibridoa izaten da. Jatorria zineman duten sorkuntza-enpresek telebistarako produkzioa ere egiten dute, zinemagintzan proiekturen bat gauzatzen dutenean, eta alderantziz.

Telebistek produkzio-etxeekin dituzten kontratu gogorrek –arriskua ez baina bai kostuak kanpora ateratzen dituzte– oztopatu egiten dute enpresa horiek kapitalizatzea; izan ere, industria-marjina estuekin lan egiten dute eta jakineko telesail batek arrakasta izanda ere marjina hori ez zaie aldatuko. Kontratu gogor horiek, eskariko oligoposonia duen merkatuari dagozkien horiek, ez dituzte bultzatzen produkzio-etxeak (gainera, askotan horiek ez dituzte izaten ezta ikus-entzunezkoen eskubideak ere) eskariari erantzuteko baliabide onenak eta garestienak bilatzera. Ondorioz, kalitatearen eta esperimentaltasunaren kaltetan izaten da, lanbide hutsez ordezkatzeko direlako.

Animazioko produkzio-etxeak. Animazioko zinema eta telesailak bereizi beharra egonik ere, kalitate, denbora eta arriskuari dagokionez, bi produktu-mota horietan lanbideak, artisautza-alderdiak, heltzeko prozesu motelak, umeentzako den produktu garestiak eta abarrek enpresa horiek oso berezi bihurtzen dituzte, baina, oro har, denboran zehar emaitza onak izaten dituzte.

Zinemagintzako produkzio-etxeena produkzio-esparru desorekatua da. Europako industria nazionalak inbertitzen dutena baino gutxiago sartzeko orain arte, eta, ondorioz, babes-fondoaren premia sortzen da; desorekak daude zinemagintzako hiru azpisektoretan bitartekaria nagusi izanik; balioaren, kostuaren eta sarreraren arteko desoreka dago, eta horregatik beharrezkoak dira babes-erregimena eta kontzentrazio erlatiboak; barne-transferentziak daude nazioaz gaindiko zinemarantz eta "izarretarantz"; eragileen sarietan desoreka dago, produktibitatearekin edo gutxi-asko objektibagarria den balio erantsiarekin nahitaz erlaziorik ez dutelako eta erlazio hori sektorearen ezaugarriekin, izarrekin, klanarekin, aurreko urteetako sarrerekin eta autoebaluazioarekin erlazionatuta dagoelako.

Eskubideen presioak itxaropenaren araberakoak gehiago dira kostuen araberakoak baino eta leiho bakoitzaren mende daude. a) Negozioaren oinarria ez da hainbeste prezioa, elkarren segidako eskari-kopurua baizik; b) nolana ere, telebistan eta bideoan prezioak aldakorak dira eta % aldakor erlatibokoak dira aretoetako merkatuan (banatzaile/erakusle erlazioa), baina erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioak finkoa izateko joera du; c) bitarteko eta amaierako merkatu guztietan prezioek gora egiteko joera dute; izan ere, eskaera ez da eskaintza adina hazten eta eskea kontzentratzeko bidetik arrakasta duten produktu gutxitara biltzen da; d) erronka handia banatzean/merkatuztean dago, nahiz eta balioaren oinarria ekoizpenean eta eskubideak edukitzean izan.

3.1.3. Euskal ikus-entzunezkoen egituraren ezaugarriak

Euskal ikus-entzunezkoen sektorean lau jarduera-gune handi daudela ikusten da telebistaren, zinemaren, iratiaren eta industria fonografikoaren inguruan.

Arlo horietan, Euskadiko sektorea urrun dago oraindik ere kultura eta enpresa aldetik dituen gaitasunak kontuan hartuta lortuta izan behar zukeen mailatik.

A) ZENBAIT KONTSUMO

456,1 milioi eurokoa zela balioetsi zen EAEko ikus-entzunezkoetako gastua, hau da, guztizkoaren % 6,7 (Nafarroarekin % 8). Pertsona bakoitzeko Espainiako estatuan batez besteko gastua 284,3 eurokoa zen. 2000. urteko zerrendan EAE hirugarrena zen (367,5 euro pertsona bakoitzeko), Madrilen (392) eta Kantabriaren (375) atzetik.

EAE Espainiako estatuan buruan dago irratia entzuten, etxeetan telefonoa edukitzen (% 92,8) eta Internet edukitzen (% 23,1 2001. urtean), eta etxebizitza bakoitzeko liburuak eta grabatutako musika edukitzen.

Bigarrena zen prentsa irakurtzen % 56,4rekin (Nafarroa da buruan % 57rekin), etxean batez beste komunikabideetako gastuan 1999an (392,6 euroekin, Madrilen ondoren, horrek 447,8 izanik) eta populazioak (ez etxebizitzek) Internetera sarbidea izaten % 25,1ekin (Bartzelona da lehena, eta % 26,6 du).

Aretoko zinemari dagokionez, kalkulatu da 7,7 milioi ikusle eta 29,8 milioi euroko bilketa daudela. Beraz, hirugarren lekuan dago Espainiako estatuko Erkidegoetan biztanleko zinemara joatearen zerrendan.

Gaur egun zinema batez ere telebistan ikusten da, eta telebista ikusten EAEn biztanle bakoitzak batez beste egunero 3 ordu eta 17 minutu igarotzen ditu.

B) SEKTOREA

Sektorea 400 enpresa inguruk osatuko lukete, eta gutxi gorabehera 3.000 pertsona enplegatzen dituzte horiek, hau da, EAEn guztira enplegatutakoen % 0,36 (Eustat-en eta INEren datuekin).

EAEk ikus-entzunezko komunikabide-sistema garrantzitsua du, baina bere erkidegora mugatua, eta hori ez dator bat Europar proiektu nazionala duen herrialdearekin eta komunikabide-kontsumo oso handiak dituen erkidegoari dagozkion premiekin.

Sistema integral gisa EITB alde batera utzita, ez du behar adina erakunde autonomo, erdigunea Madrilen duen irratiko sistema pribatu eta publikoaren pisu izugarria orekatzeko. Hori komunikabide aldetik arazoa izateaz gain, ekonomiaren aldetik ere bada.

Sektoreko enpresa gehien-gehienak oso txikiak dira. Berez, tamainaz, enpresarik handiena Euskal Telebista (500 enplegatu baino gehiago ditu) eta Eusko Irratia (100 langile baino gehiagorekin) dira²⁶.

EAE estaltzen duten Irrati eta Telebistako emanaldi gehienak egoitza Madrilen duten enpresetan egiten da. Dena den, deskonexioko ordu batzuk badira –irratian gehiago, telebistan baino– eta lekuan bertan baliabideak sortzen dituzte. Bai irratian eta bai telebistan, kate pribatuak eta publiko zentralak ikus-entzuleen % 75 hartzen dute.

Nolanahi ere, esparru mugatuetan baldin bada ere, komunikabideetako euskal ikus-entzunezkoen sisteman hauek dira esanguratsuenak: Euskaltel –kablean sartzen ari da– Correo taldeko RTV multzoa, elizbarrutietako irratia eta jesuitenak, Radio Nervión/Gorbea/Telebilbao enpresa edo Goiena taldea...

C) IRRATIA

EAE da Espainiako estatuan irratian entzule gehien dituen erkidegoetako bat. % 60 inguruan dabil eta Espainiako batez bestekoa baino 6 puntu gorago dago. Euskal Herrian 84 irradi-instalazio daude (estatuko guztizkoaren % 4,2). Horietako bost EITB taldekoak dira eta egunero 400.000 entzule baino gehiago ditu. Batez ere goizeko albistegietan buru dira. EAEn FMko irradi-instalazio komertzial asko estatu mailako kateenak dira (dauden 35etik 23) eta horiek askoz ere estaldura eta entzule gehiago dituzte.

FMko irradi komertzialen euskarazko emankizunak ez dira % 3ra iristen eta lurraldeetako neurketa soziolinguistikoei bizkar ematen zaie. Euskarazko irratia entzuten dutenak 150.000 inguru dira. Emanaldi elebidunak –zenbait kasutan, Herri Irratian, adibidez, euskarazko programek maila garrantzitsua dute– eta irradi libreak kontuan hartzen baldin badira, kopurua 200.000 entzule ingururaino igo beharko litzateke.

EAEn irradiaren egiturari zazpi irradi-taldek eusten diote. Hauek dira taldeok: EITB taldea, RNE, SER, Correo taldea, COPE, Onda Cero, Elizari loturiko irratia (Jesusen Konpainia, Bizkaiko elizbarrutia...) eta Nervión-Gorbea irratia. Bitxia badirudi ere, 1987 eta 1989ko lehiaketetan emandako maiztasunetatik seik (Nervión FM, desagertutako Orain, Loiolako eta Donostiako Herri Irratia, Bizkaia Irratia eta Arrate Irratiak) besterik ez dute garatu lekuko, eskualdeko eta lurraldeko irradi-eredua, hurbilekoa, hau da, gizarteko giro desberdinen adierazpide dena eta lehendik zeuden taldeekin loturarik ez duena.

2002. urteko lehen boladan gehien entzundako katea ohiko EITB zen, gero ohiko SER, SER Formula, ohiko RNE, Nervión-Gorbea, ohiko COPE, Herri Irratia, Onda Cero, Cadena 100, EITB Formula, CIESen datuen arabera. Baina taldekatutako entzuleria globaletan, ohiko irratietan, ohiko kateetan eta, batez ere, irradi-formula taldekatuetan, estatu mailako irratia dira nagusi.

Ia ez dago udal-irratirik (Katalunian 203 dira) eta arlo horretan garapena txikia izan da. Irrati libreena bai, ordea, azken urteotan fenomeno horrek halako berpizkundea izan du eta.

Bestetik, nabarmendu beharra dago produkzio-esparruan dauden sinergieez baliatuta irradi-programak saltzen dituzten produkzio-etxerik, oro har, ez egotea.

²⁶ INE edo Estatistika Institutu Nazionalak Euskadiko enpresa-kopurua azpisektoreka xehekatuta ematen du, eta zinema/bideoan (254) irradi/tb-n (78) baino enpresa gehiago biltzen ditu, nahiz eta azken enpresa horiek langile gehiago izan.

Labur esanda, alderdi pribatuan, oro har, irrati zentralizatu, kontzentratu, gaztelaniazkoa, formatuetan eta generotan homogeneoa eta berezko produkzio eskasekoa dago. Egitura oso kezagarria eta zuzendu beharrekoa da.

Talde-arazoa da, Administrazioak (arau berriekin) eta eragileek laster zuzendu beharrekoa. Publikoak mantentzeaz gain, egiazko lekuko, eskualdeko eta lurraldeko irrati-instalazioak garatzea bultzatu beharko litzateke, gehienbat beren programazioa dutenak eta aniztasuna sustatzen dutenak.

D) TELEBISTA

Telebista publikoa –erlaldaketa garrantzitsuak gertatzen ari diren beste herrialde askotan bezala²⁷– sektorearentzat erakunde tiratzailea izan da.

EAEko telebista-mapa hauek osatzen dute: euskal autonomiako ETB telebistak (bere lau kanalekin: Etb1, Etb2, Etb Sat eta Canal Vasco), Euskaltel plataforma digitalak eta 30 bat herri-telebistak. Horiei beste hauek erantsi behar zaizkie: RTVEko lurraldeko zentroak, Tele 5 eta Antena 3, deskonexioan egunero ordu gutxiko emanaldiak dituztenak. Denek egiten dute lehia estatuko telebista-kateekin eta plataforma digitalekin, ahalik eta ikusle-kuota handiena izatearren.

EITB da Euskadiko ikus-entzunezkoen komunikabide-talde nagusia eta horren inguruan gorpuztu da euskal ikus-entzunezkoen sarea. EITBk duen erosketa-ahalmen handia eta produkzioa kanpoan egiteko duen politika direla medio, Euskadin ikus-entzunezkoen industrian bezero nagusi bihurtu da²⁸.

1982. urtean Eusko Jaurlaritzak EITB sortzea bultzatu zuenean, ia sektorerik ere ez zegoen; izan ere, irrati eta zinemagintzako ekimen pribatu batzuetara mugatuta zegoen.

EITB sortzeak eragin handia izan du, bertako kultura hedatzeko eragin duen bultzada handiaz eta hizkuntza-normalizazioaz gain, jarduera ekonomikoan, enplegua sortzen eta Euskadiko teknika eta teknologia garatzen. Ikus-entzunezkoen industriarik ia ez izatetik, inbertsio publikoari esker, estatu mailan tamaina garrantzitsuko konpainia sortu da. Balio-kate osoan parte hartzen duen *broadcaster* gisa hartzen da EITB; oso logikoa zen garai hartan, Euskal Herrian ikus-entzunezkoen industria-sarea falta zelako eta Europako telebista publikoaren bidearekin bat zetorrelako. Hala ere, laster hasi zen bere inguruan enpresa-jarduera sortzen.

37 euskal produkzio-etxe nagusien fakturazio-bolumenak –37 milioi eurokoa 2000. urtean, EITBk fakturaturutakoa % 60 izanik– baieztatu egiten du sektore hori EITBren oso mende dagoela.

Europako erakundeetan erabaki garrantzitsuak hartu dira²⁹, eta kide diren herrialdeetan, autonomia-erkidegoetan barne, exijitu egin daitezke, Mugarik gabeko Telebistaren Arteztarauen (azkena 1999an izan zen) egokitzapenetatik. Hain zuzen, Espainiako kasuan 2001. urteko zinemari buruzko Legean gauzatu da, eta horrek telebistak behartu egiten ditu, fikziozko telesailak eta bere beste programak alde batera utzita, tokikoak ez diren telebista publikoen edo pribatuen sarreraren % 5 Europako zine, telemovie, film labur, animazioko telesail-pilotu, dokumental, errealizadore berri eta abarretan inbertitzera³⁰, eta, gutxienez, horren % 60 Espainiako edo

²⁷ Lehia pribatuak (irekian eta ordaindutakoan), irrati-telebista publikoen sistemen nortasun-krisiak, gastu publikoa murrizteak eta ikus-entzunezkoen sektore pribatuko "lobbyaren" presioak, horiek denek eragin dute Europa mailan Zerbitzu Publikoen zeregina berriz definitzea, eragile publiko eta pribatuen sistema mistoan, non pribatuek nagusi izateko joera baitute. Birdefinizio horrek berreskuratu eta eguneratu egiten ditu irrati-telebista publikoen indarra, berriarazotasuna eta nortasuna, programazio, ekoizpen, aniztasun, esperimentazio-izaera, zinema, publizitate mugatu eta abarren inguruko zeregin berrietan.

²⁸ EITBk 2001. urtean erositako produkzioen bolumena (programak, dokumentalak, telesailak, ikuskizun-emanaldiak) 21 milioi eurokoa izan zen eta horietako zati handi bat euskal produkzio-etxeei erosteko izan zen. Horietako 562.872 euro euskal enpresek ekoiztutako film luzeen, telefilm eta film laburren eskubideak erosteko eta finantzatzeko izan ziren. Gainera, EITBk euskarri-zerbitzuak erosi zituen produkzio/errealizatorako, eta 2001. urtean 6 milioiko kostua izan zuten.

²⁹ Mugarik gabeko Telebistaren arteztarauak eta horren egokitzapenak (22/1999 Legea) apustu hirukoitza egiten du eta telebista guztiak behartzen ditu, bai publikoak eta bai pribatuak, honetara: a) erabiltzaileak neurritz gainera gaineko publizitatetik babestera eta zenbait talde, haurren esaterako, babestera; b) telebista-merkatua Europa mailan programazioan eta produkzioan liberalizatzea; c) produkzio europarra edo nazionala kuoten bidez bultzatzea: emanaldi-denboraren % 51 (informazioa, kirolak, jokoak eta publizitatea kontatu gabe) Europako ikus-entzunezkoentzat, herri-telebista ez diren telebista publiko eta pribatu bakoitzean; kuota Espainian estatuko hizkuntza ofizialetakoren batean (gaztelaniaz, katalanez, galegoz edo euskaraz) egindako produkzioentzat, Europako produkzio gisa eskaintakoaren % 50; emanaldien denboraren % 10 *produkzio-etxe independenteetako* ekoizpenentzat.

³⁰ Europako zenbait telebista publikok zineman parte hartzeko ehuneko hori baino bi aldiz edo hiru aldiz handiagoa dute.

autonomiako produkzioetan inbertitzera. Gure telebisten programazioak, halaber, lehenetsi egin behar luke Europako zinema bere programazioan³¹.

ETBren kasuan³² sarrera guztien % 3tik (hau da, % 5en % 60) % 5erainoko kopuruaren zati handiena –Sustapen Ministerioak laster argituko duen interpretazio bideragarri baten bidez– lehen aipatutako genero guztietako euskal produkzioetara edo koprodukzioetara bidera daiteke. % 3tik gorako inbertsio hori, jakina, zentzuzkoa litzateke gutxi-asko proiektu sendoak egotekotan. Bestela, FORTAko kideek parte hartzen duten produkzioetara joan daiteke –lehentasuna gutxiengoa duten hizkuntzan egiten direnei emanez, baina besteak ere alde batera utzi gabe– urte bat baino gehiagoko elkarrekikotasunean oinarrituz. Ez da ahaztu behar telebista handiei lotutako produkzio-etxe handiek gero eta garrantzi handiagoa dutela eta denboran zehar zinemaren eskaintza kontrolatzera hel daitezkeela. Gainera, ikus-entzunezkoen beste arloetako inbertsioa dago, noski. Oso garrantzitsua izan da fikzioko telesailen edo beste programa-mota batzuen inguruan telebistako produkzio-etxeak eta zerbitzu-enpresak edukitzeko.

HERRI-TELEBISTA

Herri-telebisten esparrua konplexua da eta ez du ordenamendurik; izan ere, ezinezkoa da maiztasunak esleitzea Administrazio Zentralak maiztasun-mapa definitzeari uko egiten diolako. Horren ondorioz, talde handiak, alegala izanagatik, hirietan ezarri dira eta eskualde-esparruko telebista pribatu, publiko edo mistoen erudia ez da aprobetxatu³³.

Espainiako estatuan guztira dauden 387 herri-telebistetatik EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren, 30 eta 20 daude erroldaturik.

Seinalea garraiatzeko erabilitako transmisio-sistemen arabera, euskal herri-telebisten lurralde-estalduraren hainbat esparru garatu dira. Transmisioa lurrekoa eta analogikoa denean, eskualdez gairako probintziakoa, eskualdekoa eta udalekoa bereizten dira. Kable bidezko transmisioa denean, eskualde-esparrurik ez dago eta probintziakoa da nagusi udalekoaren gaineratik, Nafarroako Erriberako kanaletan, Telesko eta Urnieta TB izan ezik³⁴.

Herri-telebisten estaldura-esparrua

	Probintziala	Eskualdekoa	Herrikoa
Araba	Canal Gasteiz Alava 7	Alto Nervión Televitoria	Canal 58
Bizkaia	Bilbovisión, Canal Bizkaia, Telebilbao	Durango TB Tele 7 Urdaibai TB Uribe Kosta	Plentzia TB
Gipuzkoa	Teledonosti	Localia Gipuzkoa GoitB Goierrri TB Ikas TB Oarso TB Txingudi TB Urola TB	Jaitxiki TB, Kaito TB Kanal On Kateberria Mendaro Telesko Urnieta TB Zarauzko TB

³¹ ETB-2-k eta TV 3-k 2000. urtean zinemaren % 40 baino gehiago AEBetako programatu zuten.

³² ETBk ustiapen-aurrekontu garrantzitsua du, 110 milioi euro ingurukoa.

³³ Gobernu Zentrala ikus-entzunezkoen Lege Orokorra prestatzen ari da. 2003. urteko Aurrekontuei Laguntzeko Legean sartutako mugak jasoko litzuke. Bateriaezintasun-erregimena izango luke, herri-kateak batuta nazio mailako kateak sortzea eragozteko, edo bazkide berak aldi berean telebista nazionalen eta autonomiako edo herriko beste batzuetan parte hartzea eragozteko. Hala ere, bateragarritasuna onartuko luke erkidegoaren esparruan (bitan parte hartzea) edo herri bat baino gehiagotan parte hartzeko. Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak kontrolatuko luke ikus-entzunezkoen merkatua. Horrez gain, publizitaterako denbora gutxiago erabiliko litzateke telebista publikoetan. Halaber, herri mailako Lurreko Telebista Digitalaren Legearen mekanismoak martxan jarri dira, batez ere, eskualdeko maiztasunen mapa definitzeko.

³⁴ Txostenaren garapen-ikuspegitik ad hoc egindako ikerketa izango da. Egileak E. Arana, P. Azpillaga, I. Lazkano eta B. Narbaiza izango dira: "Euskal Herriko Herri-telebistari buruzko txostena". Mimeo. EHU 2003.

Nafarroa	Canal 4 Canal 6	Ttipi-Ttapa TB Xaloa TB	Buñuel TV, C.L de Funes C.L. Arguedas Telecadreita Telecaparroso Telefusti C.L. Mendavia Canal Peralta TV Ribaforada TV Tafalla TV Tele Marcilla Telecascante Telerrebote TV Cirvonera TV de Milagro TV Villafranca Valtierra TV
----------	--------------------	----------------------------	--

E) ZINEMA/BIDEOA

2000. urtean Euskal Herriko zinema-aretoetan ikusle-kopurua zerbait hazi zen aurreko urtearekiko eta argi eta garbi film atzerritarrak hobetsi ziren.

Euskal zinematografiako eta IBAIA edo EPE-APVko kide diren produkzio-etxe guztiek –batzuek berez Madrildik lan egiten dute– urtean batez beste bost film luze egin dituzte azken hamaika urteotan. 2000. eta 2001. urteetan batez bestekoa sei izan da. Urtero egindako apustu-kopuru hori zentzuzkoa da eta erabakigarriagoa da kalitate- eta publiko-arrakasta aldera bultzatzea. Nabarmendu beharra dago 1997an izandako ekoizpen-punta (9 film).

2001. urtea ona izan zen euskal zinemagintzarentzat; izan ere, euskal film luzeek guztira ia 35 milioi euro bildu zituzten (estatuko aretoetan guztira izandakoaren % 1,05 besterik ez, baina estatuko ekoizpenengatik leihatiletan sartutakoaren % 9,55). Bilketa horren % 50 hiru pelikulek lortu zuten.

80ko hamarkadan hain ospetsua zen euskal zinemagintzan parte ez hartzea akats larria izan da. Nolanahi ere, apustua egitekotan egiaztatutako proiektuen alde egin behar da, aurrekontu onargarria dutenen alde, nahiz eta – Akademiak dioenez– Espainiako estatuan urtero errealizadore berri gazteak urtero % 20- 30 izaten diren.

Nolanahi ere, korporazio-alderdi kezkarria badago, 2002. urteko irailean gauzatu dena. Ikus-entzunezkoen enpresa-elkartetik (IBAIA), sektoreko gehien-gehienak biltzen zituenetik, zinegile batzuk bereizi egin dira eta gutxi batzuen elkarte berria sortu izana albiste txarra izan da. Gaizki egokitzen da sektoreak duen ahultasun-egoerara eta gainera ospea galtzen du, zenbait autonomia-erkidegotan biltzeko egiten diren ahaleginen aurkakoa da eta hainbat Departamentu ados jartzeko Administrazioak egiten duen lanaren kontrako noranzkoan doa³⁵.

F) KOMUNIKABIDE-TALDEAK

EITB eta Euskaltel-ekin batera, beste euskal talde garrantzitsuak Correo taldea eta Iberdrola dira, nahiz eta bi enpresa-talde horiek beren jarduera Euskaditik kanpoko ikus-entzunezkoen eremuan bideratu.

Correo-Prensa Española taldea, 2001ean 415 milioi euroko negozio-bolumenarekin, Espainiako bigarren multimedia-taldea da. Egunkari zentral bat du, lurraldeetan buru diren 13 egunkari, Interneteko esparru

³⁵ Bereizketa honen interpretazio bakarra ez dago egiterik. Hor alderdi hauek bildu dira: merkatu txikian dagoen lehia gogorra; iraganeko historiak; IBAIA zinemaz berandu arduratzea, nahiz eta bereizketa hau, hain zuzen, elkarte horrek % 5 erabiltzeko erreklamazioan ahalegin berezia egin duenean gertatu; eta ikus-entzunezkoen politika-aldaketaz zeuden itzaropenak, sektorearen barruan (zinema, animazioa, dokumentalak...) EITBk % 5 hori erabiltzeko izan zezakeen moduaz interesak elkarren aurkakoak izatea.

guztietan daude eta parte dute, besteak beste, beste hauetan: Telecinco (% 12), BocaBoca Producciones (% 30), Grupo Árbol (% 17) eta Europroducciones-en (% 30) eta COPE katean (parte txikia). Halaber, parte garrantzitsua du herri-telebistetan (Bilbovisión, Alava 7 eta Teledonosti-n) eta estatu mailako kate garrantzitsu bateko kide dira. Orain Admira taldea (Antena 3 eta Telefonica-ren Onda Cero) bereganatu nahi du.

Iberdrola Europako konpainia elektriko nagusietako bat da, baina ikus-entzunezkoen sektorean interesak ditu Media Park (% 67,58) eta Veo TV-n (% 23,5) parte hartzen duelako. Media Park ikus-entzunezkoen edukiak eta multimedia kudeatzeko, ekoizteko eta banatzeko zentroa da, komunikabide digital nagusietarako markarekin, hau da, (satelite bidezko, kable bidezko eta lurreko³⁶) telebista digitalerako, Internetarako, mugikorretarako eta PDArako.

3.2. Ikus-entzunezkoen sektorearen balio-katea

Ikus-entzunezkoen sektorea zatikatu egin daiteke, balio-katean eragileak duen kokapenaren edo bere formatuaren arabera. Lehen alderdia kontuan hartuta, ondoko bost zatiak bereizten dira:

- Ikus-entzunezkoetako sortzaileak
- Ikus-entzunezkoetako ekoizleak
- Ikus-entzunezkoen banatzaileak
- Ikus-entzunezkoen erakusleak
- Ikus-entzunezkoen sektorearen euskarria

Ikus-entzunezkoen sektorearen ezaugarri bat rol-aniztasuna da, eta horiek eragile bakarrean bil daitezke balio-katearen zenbait mailatan eragile integratu gisa parte hartzen duenean. Telebistako kanaletan (irekikoetan edo ordainpekoetan), zinematizazio estudio handietan edo multimedia-taldeetan gertatzen da hori.

Hala ere, telebistako azpisektorean maiz izaten dira eragile hibridoak, beren jarduera balio-katean maila batean baino gehiagotan hedatzen dutenak.

Edukiaren igortzeko/hartzeko formatuaren arabera zatitzen bada, honako sei zati hauek ditugu: TB, irratia, zinema, bideoa, audioa eta Internet.

3.3. AMIA diagnostiko estrategikoa (Liburu Zuriko laburpena)

3.3.1 Zuzendu beharreko ahuleziak

Oso sektore atomizatua da, estatu mailan garrantzi handirik ez duten eta EITBren oso mende dauden enpresa txikiez osatutakoa.

Sektoreko enpresek ez dute enpresa-integrazioarako joerarik edo ekoizpen-proiektuetan elkarlanerako joerarik. Jakineko proiektuen arabera enpresak sortzen ere jarraitzen dute.

Ikus-entzunezkoen enpresa-kudeaketako egitura-defizita dago, enpresak tamainaz txikiak direlako eta alderdi teknikorantz trebakuntza-norabide handiegia dagoelako.

Autofinantzaketarako eta inbertsionerako ahalmena txikia da.

Ikus-entzunezkoentzako azpiegitura eta ekipamendurako gunerik ez dago, ikus-entzunezkoen euskal sektorean erreferentzia izan dadin eta enpresek inbertsioak optimizatuta ekoizpen-proiektu berriei ekiteko aukera izan dezaten.

Nazioartekotze-maila txikia da eta joera herri-produkzioetan lerrokatuta geratzekoa da.

Sektorean behin-behineko enplegu-maila oso handia da.

Ezjakintasuna nabari da teknologia berriak ikuspegi integraletik erabiltzeko, produktua sortzetik erakusteraino doan bidean edo eduki bera zenbait formatutan ustiatzeko.

EBk, Administrazio Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, euskal industria, oro har, sustatzeko ekimenak ez dira sakon erabiltzen ikus-entzunezkoen sektorean.

Sektorea garatzen parte hartzen duten eragile publiko guztien artean behar den koordinazioa areagotzeko jarduera-tartea dago.

EITBk ez du oraindik dibertsifikatu sektorea garatzen lagundu behar duen bere rola.

³⁶ Veo TV lurreko telebista digitala da, Iberdrola, Recoletos, Unedisa, Torreal eta Inversiones Ibersuizas-ena.

Beste autonomia-erkidego batzuek badituzte planak ikus-entzunezkoen sektorea bizkortzeko. Kanpoko merkatuetara iristeko sektore pribatuak dituen zailtasunek ez dute hobetzen utzi sektorearen errentagarritasuna, oro har.

Ikus-entzunezkoen banaketarena (hurbileko merkatuetan edo nazioartean) oraindik konpondu gabeko gaia da; baita marketin eta sustapenerako sistemena ere.

3.3.2. Ustiatu beharreko indarguneak

Bada euskal industria-sare lehiakor, bizkor eta malgua, ikus-entzunezko sektoreaz gaindi. Beste sektore batzuk bizkortzean eskarmentua dago, cluster-en bidez esaterako, non arrakasta handia lortu baita.

Informazioaren eta Teknologia Berrien Gizartearekin konpromiso publikoa dago.

Sektorean azpiegituretako eta ekipamendurako inbertsio-plan publikoa dago.

Eusko Jaurlaritzak banda zabaleko azpiegiturak garatzearen aldeko apustua egin du, formatu elkarreragile berrietan Euskadin edukien eskaria sustatzearen.

Hezkuntza-sistema kulturara eta unibertsitateko sare eta eredu onargarrietara bideratuta dago.

Trebakuntzarako eta lanbide-gaitasunerako ospe handiko ingurunea dago.

Gobernu-eskema eraginkorra da eta ekintzarako eta emaitzak lortzeko norabidea du.

Jaurlaritzaren eta EITBren arteko kontratu/programak berriz definitzen du sektorearen garapenean telebista publikoak duen zeregina.

Euskararen morroi-merkatua dago eta garapena bultzatzeko oinarri zintzoa izan daiteke, EITBren eginkizun sendotuari esker.

EITBk arlo pribatuan industria-sarea bizkortzearen aldeko apustua egin du.

EITBk eskarmentu handia du programazioan eta produkzioan eta giza baliabide kualifikatuak ditu, kalitateko talde-ondarea osatzen dutenak.

Erakundeetatik laguntza dago, ikus-entzunezkoen sektorea Euskal Herriaren garapenerako sektore estrategikotzat hartzeko.

3.3.3. Saihestu beharreko mehatxuak

Eduki “komertzial” globaleko eskaintzaren gorakada. Produktu edo formula berak hainbat merkatutara sartzten dira, euskal merkatura barne (Gran Hermano, Operación Triunfo...).

Eragile globalen eta esparrukoen tamaina eta agertzea handiagotzea (AOL, Endemol...), entzuleria eta inbertsio-ahalmen handiak dituztenena.

Ikus-entzunezkoen sektorearen zentralizazio geografikoa, estatuko hiriburuan gertatu den enpresa-kontzentrazioa dela eta.

Europar eta Espainiako estatuan dagoen gero eta lehia handiagoa (beste lurralde eta autonomia-erkidegoen garapen-planak). Lehen adierazi denez, beste autonomia-erkidego batzuk ikus-entzunezkoen beren industriei laguntzeko ekimenak garatzen hasi dira.

Ikus-entzunezko produktuen kontsumoan ikusleek eta entzuleek dituzten lehenetsunetako ohituren aldaketa-prozesuak behartu egiten du ikus-entzuleak hobeto ezagutzera, joera berri horiei erantzuteko eduki egokiak aurreratzearen.

3.3.4. Aprobetxatu beharreko aukerak

Informazioaren Gizartearen eztanda, zeinak ikus-entzunezkoen ekoizpena behar duen “banda zabaleko” edukien gero eta eskari handiagoa sortuko baitu.

Ikus-entzunezkoen eskaintza “pertsonalizatuan” espero den eskari handia (gero eta gaikako kanal gehiago dago eta kanal orokorretan gero eta ikusle gutxiago dago).

EITB FORTAn (Telebista Autonomikoen Federazioan) parte hartzea eta TDT eta Euskaltel-en parte-hartzea, horiei esker maiztasun-multiplexazio bidez eskueran dauden telebista-kanalen

kopurua igo egingo litzateke eta horrela euskal ekoizpenen banaketa-aukera handiagoa izango litzateke.

Labur esanda, sektoreak aprobetxatzeko aukerak eta ustiatzeko indarguneak ditu, baina ez da ahaztu behar lehen aipatutako ahuleziak gainditzeko politika aktiboaren premia dagoela, ikus-entzunezkoen euskal sektoreak euskal gizartean eta jarduera ekonomikoan askoz ere eginkizun garrantzitsuagoa bete dezan.

3.4. AMIA matrizearen irakurketa gurutzatua

Laburbilduz, indarguneen eta aukeren ikuspegitik ahulezia eta mehatxuen aurrean erreakzioa eraginez, eta eragileetatik, produktiotik eta merkatutik zehar-irakurketa ezarriz, beharrezko jarduera-esparru batzuk adierazterik egongo litzateke.

a) Eragile publikoak eta pribatuak

Erakundeek ulertzea eta koordinatzea, aro digitalean ikus-entzunezkoen sektoreko berariazko ezaugarriei erantzuteko eta telekomunikazioetako politikarekin ere lotzeko.

Lastertasunaz ikus-entzunezko esparruari laguntzeko tresnak definitzea, beste autonomia-erkidego batzuekiko galdu den denbora berreskuratzeko.

Kultura-politikako eragile gisa eta EITB talde publikoa denez, ikus-entzunezkoetan oro har zeregin aktiboa eta globala sustatzea.

Sektorean enpresa-tamaina onenen prozesuei laguntzea.

Atzerriko enpresak erakartzea.

Kudeaketan eraginkortasuna sustatzea, inbertsio-ahalmena eta behar adinako autofinantziazioa duten enpresak bultzatzeko.

b) Produkzio- eta enpresa-kalitatea

Giza baliabideak, sorkuntzakoak zein teknikoak, trebatzea.

Sormen-talentua erakartzeko politika esplizitua.

Kalitatea sustatzen duten enplegu-eren alde apustu egitea.

Edozein motatako proiekturi ekiteko behar adinako azpiegiturak edukitzea.

c) Produktuak eta merkatuak

Formatu, produktu eta merkatuetan joeren segimendua egitea.

Digitalizaziotik sortutako kanal eta merkatu berrien esparrua aprobetxatzea.

Produktzio-etxeren baten gidioiak “proiektu-garapen” zehatzekin laguntzea.

Euskal merkatutik kanpoko merkatuentzat ikus-entzunezkoak ekoiztea, bezero bakarrarentzako ekoizpena gaindituz eta esportaziorako ikuspegia izanez.

Produktzioa apustu horrentzat egokiak diren lengoia eta balioekin egitea pentsatzea.

Aro digitalean formatu anitzeko produktuen berrikuntzaren alde apustu egitea.

Partekatutako banaketa- eta esportazio-egiturak eratzea.

Sustapen-mekanismoei duten garrantzia ematea.

4. GOGOETA

4.1 Kultura-politika globalaren esparru nagusiak ikus-entzunezkoetan

Ikus-entzunezkoetan Eusko Jaurlaritzaren Kultura Politika orokorrak ardatz hauek izan behar ditu gogoan:

a) Irizpide orokorrak:

Ikus-entzunezkoak kultura-politikarekin oro har lotzea.

Sektoreari buruzko ikuspegi orokorraz jardutea, gaien arabera, esparru batzuetan edo besteetan lehentasunak eta indarrak ipintzeaz gain.

Ikus-entzunezkoen industria-sarea etorkizuneko ardatz berrien arabera bultzatzea.

EBren Ikus-entzunezkoei buruzko Politikan finkatutako aukeren barruan jardutea, ez gorago eta ez beheago, askotariko kulturaren alde eta esparru horretan erabat aplikatuta; esparrua neurri handi batean salbuetsia dela ulertu behar da, merkatu bakarreko eta politika horizontaleko lehiako arau komunekiko.

Euskal Kultura eta komunikabideetako esparrua garatzea, komunikabide-sistema autonomia, espazio-garapen, euskalduntze, publiko zein pribatuaren arteko oreka eta kaudimeneko parametroen arabera indartuz.

Erakunde-politika publikoak jarraibide eta tresnei dagokienez koordinatzea, erakundeak eta neurriak fiskalitate, finantza, industria edo diru-laguntzen esparruan biltzea bilatuz.

a) Sektoreari laguntzea

Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailetatik (Kultura, Industria, Ogasun, Hezkuntza eta Lan Sailetatik) eta Foru Aldundietatik (arlotan fiskala) politika integrala bideratzea, erakundeen arteko organismo egonkorren eta sektoreko Cluster-arekin.

Sektoreko politika batzuk (eragile publiko guztien erantzukizuna da, baina Kultura ez den beste Sailen parte-hartze bereziarekin) produktuaren politikarekin (eragile publiko guztien erantzukizuna da, baina Kultura Sailaren parte-hartze bereziarekin) bateratu beharra dagoela ulertzea.

Finantzaketa-neurriak bultzatzea, enpresek aldeztu aurretik gero proiektu jakin batzuetarako inbertsioak eta diru-laguntzak (bai ICAAKoak eta bai pribatuak) erakartzeko kapitala izan dezaten. Maila eta gradu guztietako trebakuntzari garrantzia ematea (sormenaren, artearen edo teknikaren arloan), hezkuntza-sisteman begiratzearen heziketa barne hartuta.

Sorkuntza eta kalitatea sustatzea, ekoizpenak barnerako eta kanporako balio dezan, bai programetan eta bai formatu eta filmetan bereziki banaketari eta esportazioari arreta eskainiz.

Errealizadore berriei eta esperimentalei eta, halaber, gidoigintzari, laguntza-lerroa mantentzea.

Aurreko hamarkadetan Madrilera emigratu zuten baliabideak erakartzea.

Zineman etengabe eta kalitatez parte hartzea, lehentasuna koprodukzioei emanaz.

b) ITBko sistema

Komunikazio-sistema publiko (EITB) eta pribatuaren zerbitzu-irizpideen aniztasuna defendatzea eta bere komunikazio-sistema kalitatera eta gero eta beregainagoa izatera bultzatuko duen erregulazio berria defendatzea –gutxieneko soziolinguistikoekin eta programazio zein bere produkzioarekin irratian eta telebistako pribatuentzat–, zeinaren eginkizunak etorkizuneko Ikus-entzunezko Komunikabideen Euskal Kontseiluak gauzatuko babilizke.

Sektorearen etengabeko segimendua egin, informazioa arautuko duen eta –beste lurralde-esparru batzuekin konparatuz– joerak atzemateko oinarria izango den Behatokiaren bidez.

Irratigintzako espektroa gertuko irratian-eredura eta kateko programazioa nagusi izan gabekora moldatzea.

Ahal den neurrian, herri-telebistako esparrua antolatzea eta herri-telebista digitala prestatzea eta kable bidezkoari arreta eskaintzea.

Erakundeen politikak koordinatzen laguntzea, bai Eusko Jaurlaritzako Sailena, bai Foru Aldundiena eta bai Udalena, kudeaketa jarraibide eta tresna politikoei dagokienez, zergen, ekonomiaren, industriaren edo diru-laguntzen arloetan erakundeak eta neurriak integartzeko asmoz.

c) Euskara

ETB 1-i lehentasuna ematea eta irrati zein telebistetarako kuota soziolinguistikoak mantentzea, deskonexioagatik edo herri mailakoak izateagatik Eusko Jaurlaritzaren erantzukizunekoak direnean. Euskarara gero eta gehiago bikoizteko erraztasunak ematea, bai zinemarako eta bai telebistarako, eta aretoetan erakusteko euskarazko gutxieneko, baina etengabeko, eskaintza segurtatzea. Zinema euskaraz ikusteko heziketa areagotzea.

Urtero zineman eta telebistan movien ekoizpenen bat erabat euskaraz egitea.

Badakigu zinema eta, oro har, ikus-entzunezkoena transferitu gabeko eskuduntza dela; beraz, horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak EAEk bi aldiz ordaintzen dituela. Alde batetik, ICAAren (Kultura Ministerioaren) mende dagoen Zinematografia Babesteko Fondoari ordaindu behar zaio, eta euskal produkzio-etxeek ez dute hortik Fondoaren guztizkoaren % 6,17 jasotzen; beraz, esan daiteke hor galera dagoela. Bestetik, euskal produkzioari zehazkiago eta behar bezala laguntzeko ordaintzen da, nahiz eta eginkizun hori transferentzia egin arte ICAAri dagokiona izan.

Beraz, EJren laguntzak berea baino ez den eskuduntza transferituta ez egoteagatik egiten den aurrerakin moduan hartu beharko litzateke eta estatuarekin arautzeko zintzilik dagoen kontua handitzeko izan beharko luke, zeina kupoa negoziatzeko eskemara erantsiko bailitzateke.

Horregatik gogoeta egin behar da zinematografiako eskualdatze orokorrari eman dakioken lehentasun-mailaz (zintzilik dagoen transferentzietako bat da) eta, ondorioz, ICAAren Fondoari dagokion % 6,17z, zeina 37 milioi eurokoa (6.200 milioi pezetakoa) izanik, 2,4 milioi euro (400 milioi pezeta) izango bailirateke, hau da, ICAAko fondoetara jotzen duten euskal filmek jasotzen ez dituztenak eta dagokionean kupotik deskontatuko liratekeenak. Gai hori ez litzateke bateraezina izango Espainiako zine osoarentzat interesgarriak diren emanaldiekin (Donostiako Zinemaldiarekin, adibidez).

Nolanahi ere, euskal laguntzen sistema bateragarria ez ezik osagarria ere bada Europako sistemarekin (Media Plus eta Eurimages-ekin batez ere) eta ICAAren sistemarekin. ICAAren sistemaren joera da maila horretan autonomia-erkidegoetako kultura-politika industrialekin osagarri ez dena, ia produktuari emandako diru-laguntzara eta zinera bakarrik mugatzen delako. Horren ondorioz, bakarka eta EAeko bertako baliabidearekin sektorea berregituratzeari berak bakarrik ekin behar dio.

4.2. Estrategia industrial³⁷

Kontuan hartu behar da ikuspegi hauek bideragarri bihurtzeko ekonomikoki bideratu behar direla.

4.2.1. Oinarrizko elementuak

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen sektoreak jarrera ahula eta indar gutxikoa du, baina gaitasunak ere baditu era errealistan jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa egiteko, abiatze, garatze eta sendotzeko mailaz maila aurrez definitutako etapen bidez egoera lehiakorra lor dezan.

Sektorea garatzen saiatzeko, ondoko oinarrizko elementuak beharko lirateke:

- Merkatu berriak irekitzea eta integrazio edo kontzentrazio bidez tamaina handiagotzea.
- Sektoreko inbertsioak optimizatzea.
- Sektoreko eragileen estrategia koordinatua.
- Sektoreko ikuspegi orokorra eta zatikakoa.
- Trebakuntza eta birziklatzea.

4.2. 2. Helburu eta lehentasun industrial orokorrak

³⁷ Ohar batzuk baino ez ditugu azaltzen, Euskadiko Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria" argitaratu bitartean.

Euskal Herrian sektorea garatzeko ardatzak lau jarduera-lerrotara bil daitezke:

Sektorearen antolamendua: cluster-a, hitzarmenak, produkzioan eta azpiegituretan erakunde tiratzaileak, Film Commission, Eusko Jaurlaritzako Sailen eta Foru Aldundien... arteko hitzarmenak sektorea garatzeko.

Enpresa-eredua hobetzea: kudeatzeko eta finantzatzeko tresnak, I+G+B...

Baliabideak areagotzea: birziklatzea, trebakuntza, enplegu-kondizioak hobetzea.

Merkatua bizkortzea: nazioarteko sustapena, koprodukzioa bultzatzea, banaketa.

4.3. Proiektuak eta ekintzak

Euskadin ikus-entzunezkoak sustatzeko dauden neurriak eta Europako Batasuneko beste herrialdeetan erabiltzen direnak parean ipintzen baditugu, ikusten da orain arte sektore berezi hau sustatzeko berariazko euskal erregimenean defizita egon dela, bai ikus-entzunezkoen ekoizpenerako zerga-pizgarrietan eta bai finantzak eta industria sustatzeari dagokionez. Liburu Zuriaren azken kapituluak arlo horretan garapen berria egin nahi du.

a) Kultura Sailak konprometitutako oinarrizko lerroak

Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren Legea prestatzea.

Ikus-entzunezkoen Behatokia edo Komunikabideena prestatzea.

Kulturatik laguntza-erregimena eguneratzea eta hedatzea, zinema eta ikus-entzunezkoa sustatu eta bultzatzeko, ekoizpenean indar berezia eginez.

Euskal komunikabide-sistema bultzatzeko pizgarri eta erregulazio osagarria.

Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko zenbait urterako Programa Kontratuaren jarraipena.

Liburu Zuria amaitzea eta horko ekintzak eta proiektuak erabiltzea; halaber, koordinazio-organo iraunkorra erakundeen eta sektoreko *cluster*-a gauzatzea.

b) Zinema, tb movieak eta animazioa sustatzea

Zinematografia eta, oro har, ikus-entzunezkoak sustatzeko laguntza-sistema kualitatiboki berritzeko lanean sakonduz jarraitu behar da ("zinematografiako eta ikus-entzunezkoen ekoizpenari emandako laguntzak", "ikus-entzunezko lanak sustatzeko laguntza-neurriak", ikus-entzuleentzako beste laguntza-erak, zinemaldiak...).

Liburu Zuriak sektorearen egituraz eta eragile publikoen zeregina definitzeaz dihardu, eta urteroko deialdia sorkuntza eta produktura bideratzen da. 2003. urteko deialdian berrikuntza hauek sartu ziren³⁸:

Zinemaren (telebistarako pelikulak barne), dokumentalen eta animazioaren arteko bereizketa –gai bakoitzari esleitutako kopuruez–, betiere horien artean ontzi komunikatuak ezarriz, ez daudelako, baldintzak betetzen ez direlako edo proiektuek kalitaterik ez dutelako hutsuneak daudenerako.

³⁸ 2002. urtean, eta urte horretan azpiegituretarako (Filmoteka) izan ziren oso inbertsio handiak alde batera utzita, Kultura Sailak 2,9 milioi euro (ia 500 milioi pezeta urteko) erabili zituen sektoreari garatzen laguntzeko. Laguntzak hauetarako izan ziren: film luzeak ekoizti eta garatzeko, film laburrak ekoizteko, gidioak egiteko eta proiektuak garatzeko (820.000); herrialde barruan eta herrialdeetik kanpo film laburren hedapen-zirkuituak sortzeko (54.091); Jaialdi-erak hedatu eta zabaltzeko plataformak sustatzeko (114.793); ikus-entzunezkoen euskal produktua kanpoko merkatuetara eramaten laguntzeko (48.080); ikus-entzunezkoari laguntzeko, Europako sare eta programetan egoteko (55.000); sektoreko enpresa-elkarteei laguntzeko (46.000); zinema eta ikus-entzunezkoak Euskadiko Filmotekaren bidez kontserbatu eta hedatzeko (240.000); ikus-entzunezko produktuetan euskarari laguntzeko (450.760).

2003. urterako hazkunde garrantzitsua planteatu zen, 4,125 milioi eurorainokoa, Filmoteka eta Zinemaldia barne hartuta, zeinak ia erdia hartzen baitute. Batez ere zinemagintzan eta sormen-produkzioan eragina izanik, ikus-entzunezkoen ekoizpena da gehien hazi dena, 820.000 eurotik 1.236.000 euroraino igo da – 96.000 euro hartzen dituzten gidioak eta proiektu-garapena barne hartuta –, eta, aldi berean, laguntza emango zaio Euskadin ekoiztutako ikus-entzunezkoen produktuak kanpoko merkatuan egoteari: ("niniak") – lehen halako bi baino gehiago du 116.000 euroekin – eta Kimuak film laburrak sustatzeari – 66.100 euro –. Zinema euskaraz atalarentzat 638.000 euro daude eta beste zenbaitentzat (Antena Media...) 115.000 euro.

Film laburrak sustatu eta zabaltzeko laguntza mantentzea (Kimuak), eta horri beste laguntza-programa bat gehitu zaio, ikus-entzunezkoen nazioarteko emanaldietan lanak eta produkzio-etxeak egon daitezzen (Niniak).

Aholkularitzako Batzorde Teknikoen eraketa eta irizpideak aldatzea, bai laguntzearako sarbidea izateko eta bai horiek lortzeko, objektibotasun eta gardentasun handiagoa edukitzearen.

Baldintzen eta lehentasunen objektibazioa laguntzetan.

Epe ertainera amortizazioari buruzko laguntzak ematea, leihatiletako sarreren arabera eta proportzio berean laguntzak murriztuz, berrien obrak eta kalitate berezikoak salbu.

Koprodukzioa eta euskal obra kontzeptuak zehaztea.

Gidoiei eta multimedia proiektuen garapenari laguntza-lerroa irekitzea.

Kopuru orokorra handiagotzea, bai zinemarentzat eta bai TB movientzat.

c) **Herri-telebista** garatzea (komunikabideen txostenean gara daitekeena)

Zintzilik dauden gaiak hauek izan daitezke:

Herri-telebista digitala mailaz maila garatzea, maiztasun-maparen banaketa ezagutzen denean eskualdeari lehentasuna emanez, Eudel-ek eta hiri handietako udalek parte hartuta.

Eusko Jaurlaritzak edukien esparruan gutxieneko batzuk arautzea (kuota soziolinguistikoa eta norbere programazioarena); are gehiago euskarak eta oraingo herri-telebistetan norbere programek duten leku txikia ikusita.

Euskaltel-ek bere herri mailako garapenaren sustapenari herrietako telebistari eta probintzietakoei arreta berezia eskainiz ekitearen premia.

Herriko informazioari eta herriko bertako produkzioari eman beharreko bultzada.

Kudeaketako sistema mistoei –publiko/pribatuei– beren aldaera ugarietan ekiteko aukera eta premia, hurbileko komunikazioaren aukerak aprobetxatzeko, baina eskualde edo herriko irrati eta telebistarentzat konbinazio garestiak ez direnak alde batera utzi gabe.

EITBren eta herri-kanalen arteko hitzarmenen komenentzia (informazioak eta deskonexio-orduak partekatzea; euskarazko programak uztea...).

d) **Irrati komertziala** (komunikabideen txostenean gara daitekeena)

FM pribatuen dekretuaren hedapena, kontzesio berri izan daitezkeenentzat bakarrik, estatuak Estatutuaren kontra kontzesioak automatikoki luzatu ondoren.

Udal-irrati izan daitezkeen azterketa.

Publizitateagatik lehia egiten ez duten kultura-adierazpide edo aukerei, potentziak gainditzen ez dituzten eta kontzesio-erregimenean araututako espektroa ukitzen ez dutenei, segurtasun handiagoa ematea.

e) EITB

Kontratu-Programa betetzea eta segimendua egitea. Liburu Zuriaren garapenen segimendua egitea.

4.4 Zailtasunak

Kanpokoak

- Estatuko legeria berri mugatzailea (Ikus-entzunezkoen lege orokor berria; irrati-maiztasunak ez zabaltzea, maiztasunak digitalean mugatzea...)

- Egoera politikoaren interferentzia-

Barnekoak

- Oro har, jarduera-lerro honentzako zailtasunen iturria eragileak berak izan daitezke:

Publikoak: Kulturak arau-konpromisoak ez betetzea, edo berariazkoak ez diren Sailen parte-hartzeari jarraipena emateko zailtasuna edo erakundeek organismoak motel eratzea; edo eman nahi den jauzi kualitatiborako finantza aldetik behar adinako apustua ez egitea (erakundeak, fondoak...).

EITB: lider izatea sektorearen mendeko bihurtzea erakundearen premiekiko, edo zerbitzu publiko gisa, oro har, komunikabideen sistema aldatzeko dituen aukerak ez aprobetxatzea.

Pribatuak: sektoreak ez ulertzea une honetan dauden aukerak eta eskakizunak.

- “Euskadi Informazioaren Gizartean”i lotutako ekimenetatik askatzea.